

**Unanuko inauteriak
balorean jartzeko
Mamoxarron
Txokoa
mustu dute** / 8

**Aralarko turismo
informazio puntua
herenegun zabaldu
eta irailaren 30era
arte egonen da** / 5

**Sunsundeguiko
langileak "lan eta
etorkizun duina"
eskatzen hasi dira
mobilizazioekin** / 10

**Portlandeko
langileak greban
lan hitzarmenean
txanda kontratua
jasotzeko** / 7

**Igor Arrietak Kern
Pharma taldea
aukeratu du datorren
urtean profesionaletara
igotzeko** / 11

**Andoni Mutiloa
Irazustaren
'Esnatu naiz'
kabareta izanen
da Altsasun** / 15

Trail korrikalarien paradisua

Sakana Trail Estazioa aurkeztu dute, bost ibilbide dituen / 2-3



UDA KO
BEHERA PENAK

Sakana optika
optometriak - audimetriak - kontaktuak

INTXOSTIA ZEHARBIDEA 10 (ALTSASU)
948 563 124
WWW.OPTIKASAKANA.COM

Trail korrikalarien gozamenerako

Uharte Arakilgo Itxesi Gunean aurkeztu zen Sakanako Trail Estazioa. Sakanako mendi lasterketetan oinarritutako 5 ibilbide ditu, Euskal Herriko Trail Estazioan sartuta dago eta azken hau Station de Trail nazioarteko sarearen parte denez, bultzada handia jaso du

Maidar Betelu Ganboa UHARTE ARAKIL
Uharte Arakilgo Itxesi Guneak zerbitzu berri bat du. Igerilekuei, futbol zelaiari, haurrendako parkeari, merenderoari, jatetxeari eta karabana guneari aurreko ostiralean mustutako Sakanako Trail Estazioa gehitu zaio, igerilekuko aldagela eta komunetan prestatu duten gimnasio txikiarekin batera. Uharte Arakilgo alkate Txomin Huarte Baleztenak aurkeztu zuen egitasmoa. Sakanako Trail Estazioa Aralar mendizerran, Urbasa-Andia Natur Parkea, Ziordia, Olazti, Altsasu, Urdiain, Etxarri Aranatz, Lakuntza eta Uharte Arakil herrietako dermioletatik pasatzen diren 5 ibilbidek osatzen dute. Sakanako Trail Estazioa Euskal Herriko Trail Estazioko parte da, Gipuzkoako Diputazioak hala onartuta, eta Gipuzkoarekin 19 ibilbidetan bat egiten du; beraz, guztira 24 ibilbide dira. Euskal Herriko Trail Estazioa Station de Trail marka frantsesaren barruan dagoenez, horrek are gehiago bultzatu du egitasmoa.

Aurrekontua

Trail estazio bat running praktikarako egokitutako espazio bat da, hau da, mendian korrika egiteko eremu bat. Sakanako Trail Estazioa osatzen duten 5 ibilbide hauek mendian lasterka aritzeko ibilbideak dira, zailtasun desberdinetakoak eta segurtasunari begira seinaleztapen eta marka jakina dutenak; hau da, marka

konkretu batek homologatuak eta seinale edo baliza espezifikoak dituztenak. Halaber, Uharte Arakilgo Itxesi Gunean erabiltzaileendako harrera gune txiki eta gimnasio txiki batekin osatzen da proiektua. Proiektua Uharte Arakilgo Udalak sustatu du, eta guztira 40.181,68 euroko aurrekontua izan du. %65 Landa Ga-

rapenerako 2014-2020 Programak lagundu du, FEADER funts europarraren bidez, eta gainontzeko %35 Nafarroako Gobernuak funtsen bidez. Horretaz gain, Uharteko Udalak zenbait hobekuntza egin ditu, 2.000 euro ingurukoak.

Trail running praktikarako eremua

"Sakanako mendiarekiko zaletasun handia izan da beti. Mendi lasterketa ugari antolatzen dira, eta mendian korrika egitea geroz eta ohikoagoa bilakatzen ari da. Bestalde, kirolak turismoan izan duen eragina ukazina da, mendi lasterketek turismoa erakartzen dutelako. Testuinguru honetan sortu da Sakanako Trail Estazioa, eta ekimenarekin naturarekin harremana duten aisialdi aktibitateak sustatu nahi dira. Ildo berean, bisitariak gure kultur eta natur ondarea era ezberdin batean ezagutzeko aukera izango dute. Pandemia urte honetan, mendia ihesbidea izan da, eta geroz eta jende gehiagok jo du mendira, gure baso ingurueta, gozatzera eta kirola egitera. Aurkeztu duguna beste eskaintza bat da: Sakanako Trail Estazioa honek sarrera emango dio trail running praktikarako egokitutako eremu zabalari, mendi korrikalariei egokituta" azaldu zuen Txomin Huarte Uharte Arakilgo alkateak.



Sakanako Trail Estazioaren aurkezpenean proiektuaren sustatzaile eta laguntzaileak bildu ziren. E

Aurrekariak

Proiektua 2017an sortzen hasi zela gaineratu zuen Huartek, Sakanako Plan Estrategikoaren barruan, Sakanako Garapenaren Agentziak eta Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak Sakanako mendi lasterketa antolatzaileen taldeekin -Olatzagutia-Urbasako Sutegi, Lakuntza-Aralarko Zabalarte, Etxarri Aranatzko Triku Trail, Uharte Arakil-Beriain Km Bertikaleko Aralar Mendi eta Altsasuko Mendigoizaleak eta Iratxo taldea- egindako bilera deialdi batean. Bilera hartan Sakanako Trail Estazio bat sortzeko aukera baloratu zen. Euskal Herriko Trail Estazioa Station de Trail marka frantsesaren barruan dago, eta aurretik Gipuzkoan bi sarrera zituen, Zegaman eta Abaltzisketan. Sakanako Trail Estazioarekin hirugarren sarrera bat sortzeko aukera sortu zen eta Station de Trail marka frantseseko ordezkariak prozesuan parte hartzen hasi ziren. "Gure mendi taldeek trail estazio honen beharra ikusi zuten, eta inguruko instituzioek behar hori jasotzen eta garatzen jakin zuten. Halaxe sortu da Sa-

kanako Trail Estazioa eta Itxesi Guneak harrera gune honek gure lurraldea irekitzen du eta saretzen du, Euskal Herriko beste trail estazioekin batera, gure mendia zeharkatu nahi duen edonori hirugarren sarbidea eskainiz" eskertu zuen Txomin Huartek.

Hasieran, hainbat ibilbide posible planteatu ziren, 11 inguru. Azkenean, bost aukeratu ziren, hain zuzen ere Olatzagutia-Urbasako, Etxarri Aranatzko Triku Trail, Lakuntza-Aralarko eta Uharte Arakil-Beriain Km Bertikal lasterketetako eta Hiru Mendizerra probako trazatuetan oinarrituta daudenak, baina ibilbideei zenbait aldaketa egin zaizkie, natur guneak babesteko. Egun 5 ibilbide dira, baina egitasmo irekia dela nabarmendu zuen Uharte Arakilgo alkateak, hau da, beste ibilbide batzuk jasotzeko zabalik daudela. Nabarmendu zuen ibilbide horietako batzuk babes bereziko natur guneetatik pasatzen direla. "Beraz, errespetuz ibili eta ingurunea zaindu beharko dugu, guztion ardura delako. Goza dezagun inguruaz, ziurtasunez, eta etorkizunari begira, errespetuz" nabarmendu zuen.



EGOKI
Ventanas PVC Leihoak
www.ventanasegoki.com

Arkinoturri Industrialdea - Olazti

GIDARIDUN LEHIO BERRIAK
Mugarik gabeko estetika modernoa

Erakusketa: Olite kalea 16 - Iruñea





Estazioan jasotako 5 ibilbideak gure ingurua ezagutarazteko tresna paregabea direla nabarmendu zuten.



Sakanako mendi klubetako ordezkariak pozik daude Sakanako Trail Estazioarekin.



Txomin Huartek bildutakoei Itxesi Guneako zerbitzu eta azpiegiturak erakutsi zizkien.

Hemengo altxorrek nabarmendu Sakanako Mankomunitateko presidente David Oroz Alonsok Sakanan turismo jasangarria sustatu nahi dela adierazi zuen. "Hemengo altxorrek nabarmendu nahi ditugu, balioan jarri,

**"GOZA DEZAGUN
INGURUAZ, ETA
ETORKIZUNARI
BEGIRA, ERRESPETUZ"
TXOMIN HUARTE**

modu jasangarrian eta natura-
rekiko errespetuan oinarrituta.
Orain dagokiguna da Sakanako
Trail Estazioari oihartzuna emate
eta egindako lanaz gozatzea" opa
zuen. Halaber, Sakanako Trail
Estazioaren proiektuak Sakanak
dituen ezaugarri askorekin bat
egiten duela nabarmendu zuen,
"behetik gora erai ki delako, mendi
taldeekin, urtetan mendi ibilbide
hauek sustatu dituztenekin", eta
auzolanean egindako proiektua "zela
azpimarratu zuen, "jende askoren
lanari esker posible izan den
proiektua, horrek ematen dion
balore erantsiarekin", eta horre-
gatik eskerrik beroenak eman
zizkien Uharte Arakilgo Udalar-
i, Mankomunitateko Kirol Zerbi-
tzuari, Sakanako Garapen Agen-
tziari eta Sakanako mendi taldeei
"urteak daramatzatelako ingur-
uan dugunari balioa ematen".

Segidan Sakanako mendizale
taldeetako ordezkariak igo ziren
oholtzara: Fermin Zornoza (Olaz-
tiko Sutegi), Patxi Rubio (Aralar
Mendi), Iñaki Mauleon (Triku
Trail) eta Andres Bengoetxea eta
Txema Morcillo (Altsasuko Men-
digoizaleak). Guztiek Sakanako
ibilbideak markatu izanaren
garrantzia nabarmendu zuten,
eta "gure ingurua ezagutarazte-
ko tresna paregabea direla" azal-
du zuen Zornozak. Rubiok gai-
neratu zuen gure ingurunea modu
seguruan ezagutzeko aukera
eskainiko duela trail estazioak,
"ibilbideko trackei eta atzean

dagoen azpiegitura guztiari es-
ker". Mauleonek aipatu zuen oso
pozik daudela gure ibilbideak
Sakanako Trail Estazioan ego-
teagatik, "horrek gure txokoak
eta bazterrak Euskal Herrian
eta Europan ezagutaraziko di-
tuelako". Eta Bengoetxeak gai-
neratu zuen trail estazioak men-
dizale gehiago erakarriko ditue-
la gure txokoetara.

Aipatutakoez gain, beste hain-
bat ordezkari bildu ziren Saka-
nako Trail Estazioaren aurkez-
penean: Nafarroako Kirolaren
Institutuko Ramon Santesteban,
Gipuzkoako Foru Aldundiko
Turismo Plangintza eta Kudea-
ketako unitateko buru Xabier
Elizegi, Trail Estazioetako or-
dezkari Miren Arrigain, Etxarri
Aranazko alkate Silvia Maraño,
Uharte Arakilgo zinegotzi Ama-
goia Betelu eta Julen Martiarena,
Bidelagun elkarteak Alfonso
Nuin, Cederna Garalurko kudea-
tzailer Ibon Memetza, Sakanako
Mankomunitateko kirol tekni-
kari Amaia Gerrikagoitia eta
abar. Ekitaldia bukatuta, bildu-
takoei Itxesi Guneako parkea,
merenderoa, autokarabana gunea
-15-16 ibilgailurendako tokia du
eta harrera bikaina du-, igerile-
kuak, gimnasio txikia eta beste
bisitatu zituzten, eta bukaeran
Dastatu Sakana eskualdeko ekoiz-
pen jasangarrien elkarteak pro-
dutu bikainekin prestatutako
auzateaz gozatu zuten.

APPa deskargatzeko eskaera

Sakanako Trail Estazioa erabi-
liki dutenen segurtasuna ber-
matzeko telefono mugikorreta-
rako 'Station de trail' izeneko
APPa deskargatzea ezinbestekoa
dela nabarmendu zuen Txomin
Huartek, edo, bestela, ibilbidea-
ren tracka deskargatzea, ondoko
webgunetik: <https://stationde->

Sakanako 5 ibilbideak

- **Beriain Km Bertikala:** 30 zenbakidun ibilbidea da. Beltzez markatuta, duen zailtasun handiarengatik. 5,2 km eta 990 metroko desnibela du, eta Sakanako Trail Estazioan abiatzen da.
- **Triku Trail:** 31 zenbakidun ibilbidea, urdinez markatua. 19,5 km eta 1.217 metroko desnibela du eta Etxarri kanpinetik abiatzen da.
- **Olazti-Urba Trail:** 32 zenbakidun ibilbidea da, gorritz markatutakoa, 23 km eta 1.014 metroko desnibela duena. Erburua kiroldegitik abiatzen da.
- **Lakuntza-Aralar:** 33 zenbakidun ibilbidea da, gorritz markatutakoa, 25,4 km eta 1.102 metroko desnibela duena eta plazan abiatzen dena.
- **Hiru Mendi Zerrak:** 34 zenbakidun ibilbidea, beltzez markatutakoa, 46,5 km eta 2.138 metroko desnibela duena eta Altsasuko Foru plazan abiatzen dena.

trail.com/es/stations/pais-vasco-gipuzkoa-sakana/parcours. Ibil-
bideak balizekin seinaleztatuta
daude eta bakoitzak bere zenba-
kia du markatuta, 30etik 34era,
eta zailtasunaren arabera kolorea: beltza, gorria, urdina
edo berdea.





ASTEKOA

AITZIBER GRADOS MUÑOA

Tariro tariro

Hasi da uda, eta gorputzak badaki. Eguzki eta beroaren azken helmuga Sakana bada ere, udako promozioak laster iristen dira gurera. Gure gorputzetan zizelkatzen dituzten gidalerroei zin egitea zaila da. Eta are zailagoa da udan. Ekaina iristen denean, lehenagotik ere genituen beldurak hirukoiztu egiten dira, inoiz baino gehiago larruazaleratzen dugulako gorputza. Gure naturaltasuna eta gure nortasuna erakusten ditugulako. Konplexuz beteriko gure edertasuna. Eta zaurgarriago sentitzen gara. Beno, sentiarazten gaituzte. Eta, noski, uda gorroto dugula pentsarazten diguten bitartean, gure gorputzak zigortzen ditugu, besteekin batera. Gure segurtasun ezaren izerdiaz. Eta kondanaren erdia baino gehiago bete ostean, gutako asko konturatu gara, ez dela beroa gorroto duguna, sistemak gorroto gaituela gu; gure jantziak, formak eta izateko moduak errealitatetik aldenduz. Arropaz lepo nahi bagaituzte, gure kolore,

Ekaina iristen denean, lehenagotik ere genituen beldurak hirukoiztu egiten dira

ipintzen. Abuztuan lerro hauen artean elkarren berri izango ez badugu ere; kalean, elkarbizitza sano eta parekide baten lehen lerroan behintzat, ikusi nahi zaituztet. Uda zoriontsua opa dizuet! Eta zuek, eguzki eta bero, ea noiz zatozten gurera! Gorputz eder hauek paseoan atera nahi ditugu!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Alkoholaren edozein kontsumok garunari eragiten dio, Oxfordeko ikerketa baten arabera

SAKANAKO PREBENTZIO ZERBITZUAK

25.000 britaniar aztertu dituen lan baten arabera, zenbat eta gehiago kontsumitu, orduan eta txikiagoa izango da garunaren tamaina. Alkoholaren gehiegizko kontsumoak urtean 3 milioi heriotza eragiten ditu munduan. Alkoholaren edozein kontsumo, baita ardo txikitoa edo garagardo kopa bat ere, garunarentzat kaltegarria dela ondorioztatu da ikerketa honetan. Gainera, alkohola edateak, nahiz eta neurritz edan, garuneko materia gris kopuru txikiagoarekin zerikusia duela zehaztea ahalbidetu du aipatutako ikerketak.

Oraindik berrikusia izan ez den lanak iradokitzen du zenbat eta alkohol gehiago kontsumitu, orduan eta txikiagoa dela garunaren tamaina, eta edozein kontsumo mailak ondorio negatiboak dituela adierazten du. "Ez dago alkohol dosi ziurrik garunarentzat", ondorioztatu dute. Ikerketak adierazten du, gainera, kalteak garun osoari eragiten diola, eta ez soilik eremu espezifikoei, hasiera batean uste zen bezala.

Zientzialariek datu base handi bat erabili dute, ikertzaileei pertsona batzuek

gaixotasunak garatzea eta beste batzuek ez garatzea eragiten duten faktore genetikoak eta ingurumenekoak dekodifikatzen laguntzeko. Lan horretarako, Oxfordeko taldeak 25.378 pertsonaren datuak aztertu zituen, alkohol kontsumoari eta garunaren tamainari buruzko informazioa barne, baita memoria testak eta osasun datuak ere.

Astean zenbat eta alkohol gehiago kontsumitu, orduan eta materia gris dentsitate txikiagoa. Zehazki, ikertzaileek azpimarratu dute alkoholak %0,8rainoko aldaketa azaltzen duela garunaren alde horretako bolumenean, frogatutako beste edozein arrisku faktore aldagarri baino gehiago, tabakismoa barne. Era berean, alkohol kontsumoaren eta substantzia zuriaren osotasun neurri guztien arteko lotura negatiboak aurkitu dira. Eta alkoholak eragindako garuneko kalteak handiagoak zirela antzeman zuten arteria presio altuko edo gorputz masaren indize altuko (GMI) pertsonengan.

Neurritzko kontsumoa

Alkoholaren gehiegizko kontsumoak garuneko osasunean duen eragin

kaltegarria argi zegoen arren, "neurritzko kontsumo"-aren eraginak oraindik ere eztabaida pizten zuen, batez ere ardo beltzari dagokionez. Azterlan batzuek edari hori neurritz edateak dakartzan onurak adierazten zituzten, adibidez, bihotza, kolesterol aurrizten eta odol koaguluak prebenitzen laguntzen duten mikronutriente batzuen edukitzeagatik. Teoria honen aurrean, kontsumo moderatuarekin onbera, beste ikerketa batzuek kontrako adierazten dute. 2019an Oxfordeko Unibertsitateak, Pekingo Unibertsitateak eta Txinako Medikuntza Zientzien Akademiak elkarlanean egindako ikerketa baten arabera, presio arteriala eta istripu zerebrobaskularren arriskua etengabe handitzen dira alkohol kontsumoa handitzen den heinean, edandako kopurua eta mota edozein izanda ere.

Normala dena edatea gehiegi izan daiteke.

Mugak jartzea garrantzitsua da. Edatea erabakitzen baduzu, beti neurriarekin egitea da gomendioa. Kontsumoa murrizteak edo saihesteak onurak dakartzio osasunari.

Oporren aurretik azkeneko Guaixe astekaria uztailaren 30ean izanen da.
Kurtsoko lehenengoa berriz, irailaren 3an.

guaixe

SAKANAKO ATEKARIA

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhua Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Idoia Artieda Larraga

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Udalak milioi bat euroko inbertsioak egingen ditu

Diruzaintzako gerakinarekin finantzatu dira lan horiek. Horien artean daude hainbat kaletan LED argiak jartzea edo Ibarreako saneamendu sareko lanen 3. fasea. Udalak joan den urteko kontuak 1,3 milioi euroko superabitarekin itxi zituen

ALTSASU

Aurreko urteetan bezala, aurretik ere, Altsasuko Udalak diruzaintzako gerakinarekin diru zati bat inbertsioak egitera bideratu du. Guztira 1.063.299,61 euroko balioa duten inbertsioak egitea aurreikusi du. Diru horren %46,07 (489.953,94 euro) argiteria publiko berritzeko bigarren faserako izanen da. Javier Ollo Martinez alkateak azaldu duenez, kaleetako faroletako bonbillen ordeztu LED argiak jarriko dituzte; eta, ondorioz, argindar faktura merkatuko du udalak. LEDak Bakea kalearen zati batean, Zelai, San Juan, Altzania, San Pedro, Er-kuden, Kale Txiki, Intxaurrondo, Burunda, Intxostia zeharbidea, Egubera eta Baratzako Bide eta Iortia plazetan jarriko dira. Inbertsioak Trantsizio Ekologikorako eta Erronka demografikorako Ministerioaren %50eko dirulaguntza du.

Aurreikusitako beste lan handia Ibarrea industrialdeko saneamendu sarea egiteko lanen hirugarren fasea da. Horretarako, udalak 215.485,72 euro bideratu ditu. Atzera kargatzaile bat erosteko 100.000 euro ditu udalak. Bestetik, Gure Etxea eta Garbitoki eraikinetako berogailu sistema berrituko ditu Altsasuko Udalak 85.000 euroekin. Udan



Gizonezkoa San Joan eta Zelai kaleen bidegurutzean, LED argiak jarriko dituzte.

zehir Zelandi ikastetxe publikoko beheko lehen solairua pintatu du Erki Construcción sosteniblen enpresak, eta horren truke 41.859,95 euro (BEZ barne) jasoko ditu. Garbitoki eraikinetako igogailua berritu behar da, eta, horretarako, 35.000 euro aurreikusi dira.

Kaleetan konponketak egiteko 30.000 euro aurreikusi ditu udalak. Kopuru bera bideratu du lorategi lanetarako makineria erosteko. Beste 30.000 euroekin Dantzalekuko kirol guneko sarbidea kontrolatzeko sistema bat

eta tornu sistema bat jarri dira. Azkenik, jubilatutako elkarteko patioan estalki bat jartzeko 6.000 euro bideratu ditu.

Altsasuko Udalak 1.332.136,32 euroko superabitarekin eta gastu orokorretarako 3.603.803,99 euroko diruzaintzako gerakinarekin itxi zituen 2020ko kontuak. Alkateak nabarmendu duenez, nahiz eta 2020an inbertsio ugari egin, eta pandemia sortu, "udalaren egoera ekonomiko onbideratuak Altsasu hobetzen segitzen utziko digu". Udal Ogasunakoen egiteko eskertu du Ollok.



Aralarren turismo informazio puntua 2017az geroztik jartzen da. ARTXIBOA

Turismo informazio etxola, Aralarrera bueltan

Asteartetik larunbatera 11:00etatik 18:00etara zabalik egonen da eta igandeetan 10:00etatik 14:00etara

SAKANA

Asteazkenaz geroztik irailaren 30era arte zabalik dago Aralarko turismo informazio puntua. Aralarko aterpetxearen parean, han ari da lanean Amagoia Azpiroz informatzailea. Hala nahi duten bisitariak harrera egin eta Aratz, Areso, Imotz, Larraun, Leitza, Lekunberri eta Sakanaren eskaintzen berri ematen die. Izan ere, Plazaola turismo partzuergoak eta Sakanako Mankomunitateak sustatzen dute turismo informazio gune hori. Urtero txandakatuz hartzen dute haren ardura; aurreneko erakundearena da aurretik. Joan den urteko etenaren ondoren laugarren urtea da jartzen dena.

Sakanako Garapen Agentziako turismo teknikari Paki Urbitarte Cabrerak jakinarazi duenez, Aralarko informazio puntua zabalik egon zen azken udan -2019an- 2.144 informazio harre-

ra izan ziren, eta, horien bitartez 7.919 bisitari irabaztu eman zitzaizkien. Duela bi urteko bisitari gehienak nafarrak ziren: %28,8 (2.281). Gipuzkoatik ere bisitari ugari jozuten Aralarrera: %12,98 (1.281). Kopuruari erreparatuta, Madrilik etorritako bisitariak %10,2 (808) eta kataluniarrak %8,86 (702) izan ziren. Bizkaitarrak eta arabarrak ere izan ziren bisitatu Aralarren: %6,13 (486) eta %4,64 (368) hurrenez hurren. Azken bisitari talde handienaren jatorria Valentzia izan zen, %4,11 (326).

Urbitarrek gaineratu duenez, bisitarien %10,44 atzerritarrek (827) izan ziren. Frantziatik etorri ziren %4,55 (361). Gainontzeko herrialdeetako bisitarien kopuruak txikiagoak dira: Herbehereak 49, Alemania 48, Suitza 43, Argentina 39, Kolonia 36 eta AEB 32. Sei herrialdeen artean bisitarien %3,11 dira (247).

BIL TOKI
TABERNA • JATETXEA

Eguneko menua 11 €

Menu berezia 15 €

Telefono berria:
948 562 348 • Altsasu

PORTUKO
okidengia

Altsasu:
948 563 822 (denda)
948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranatz:
948 460 988

AUTOMOBILEN ASEGURUAK

GELDIEZINAK

%50 — **12 HILABETETAN**
ORDAINTZEKO PLANGINTZA

2 HILABETE DOHAIN
ONGI GIDATZEAGATIK

ARTEKO DESKONTUA

MAPFRE

948 563 354 | jimazpr@mapfre.com
San Juan 48 • ALTSASU



Omenaldia bukatuta, ezkila jotzaileek elkarrekin talde argazkia atera zuten.

Ezkila jotzaile handiari aitortza

Arruazuko herriak omenaldi beroa egin zion Tomas Ganboa herriko ezkila jotzaileari. Makina bat ezkila txapelketa irabazi izan zituen eta Arruazu ezkilaren herria bilakatu zuen. Herritarren eta bere ezkila jotzaile kideen berotasuna eta aitortza jaso zuen

Maidar Betelu Ganboa ARRUAZU
Eliza bete egin zen igandean Arruazuko Udalak Argiñarenan sortutako Tomas Ganboa Ganboa ezkila jotzaile ezagunari egindako omenaldirako. "Bagenekien jendea etorriko zela, baina ez genuen uste hainbesterako izango zenik, eta horregatik oso pozik gaude" esan zuen Arruazuko alkate Gorka Ovejero Ganboak. Lehenik eta behin, Tomasen ibilbidea biltzen duen *Azken errepika* ikus-entzunezko proiektatu zuten. "Duela 4 urte, Tomasek ezkilak jotzeari utziko ziola jakin genuenean, kanpandorrera igo eta jaistea kostatzen zitzaioelako, bere ibilbidea bildu eta gordeta izateko ikus-entzunezko bat egitea erabaki genuen, noizbait ere berari omenaldia egingo genionean dokumentua proiektatzeko. Eta eguna iritsi da" gaineratu zuen Ovejero.

Amaia Erdozia eta Oscar Corrozk egindako lana da *Azken errepika*, eta 2017an Tomasi egindako elkarrizketa eta hark irabazitako txapelketen eta erakustaldien argazki zaharrak jaso eta gero, Tomasek Arruazuko ezkila dorrean jotako errepika ikusgarri batekin bukatzen da. Bazi-rudien Tomas bera zuzenean ari zela ezkilak jotzen, eta Argiñarenako ezkila jotzailea hunkitu ere egin zen.

Ezkila jotzaileen babesa
Omenaldiak plazan jarraitu zuen. Tomasen bidelagun izandako sei

**"BIZI GUZTIA
HORRELA IBILI NAIZ,
SOINUA ATERATZEN,
ETA GUSTURA"
TOMAS GANBOA**

ezkila jotzailek errepika bana jo zuten. Ondokoak izan ziren: Josu, Iruñeko katedralekoa; Javier Saralegi, Lekunberrikoa; Joxe Flores, Lakuntzakoa; Miguel Angel Irurtzun, Ihabarkoa; Joaquín Miguel, Zamorakoa baina urte erdia Iruñean bizi eta katedraleko ezkila jotzailea dena; eta Peio Martinez, Lakuntzakoa. Ederra izan zen Arruazuko ezkila finen errepikak entzutea. Haiekin batera beste zenbait ezkila jotzaile izan ziren, Iruñea, Artaxoa eta Santakaratik etorritakoak. "Tomas sekulako ezkila jotzailea da. Bera bezalakoak gutxi daude. Izugarri estimatzen dugu" nabarmendu zuen Santakarako Jose Ochoak.

60 urte luze
Gorka Ovejero alkateak eta Oihana Zubeldiak gidatutako omenaldian, Tomas Ganboa 60 urte

"Ezkilak jotzea handia izan da niretako; oso eskertuta nago"

TOMAS GANBOA GANBOA ARRUAZUKO EZKILA JOTZAILEA

Zure omenaldira jende asko etorri da.

Bai, urduri jarri naiz eta hunkituta nago, baina oso pozik nago.

Zure ibilbideari buruzko 'Azken errepika' ikus-entzunezkoa gustatu al zaizu?

Bideoa ikusten nuen lehendabiziko aldia izan da eta bai, lan ona egin dute. Oso dotorea.

Zure ezkila errepika batekin bukatu da bideoa, eta berriro ere Arruazuko ezkila dorrean ezkilak jotzen zeundela zirudien. Oso polita izan da.



ARTXIBOA

Bai, hunkitu egin naiz. Bizi guztia horrela ibili naiz, soinua ateratzen, eta gustura. Ezkilak jotzea handia izan da niretako.

Tarteka ezkila dorrera igotzen al zara edo ezin duzu? Izan ere, eskailera horiek...

Igotzeko baino gehiago, jaisteko dira makurrangoak. Barraskilo itxurakoak dira, triangeluarrak, baina izkinak borobilduta daude eta meharrek dira, eta ez dute


heldulekurik. Oso eskailera txarrak dira. Duela 3 urte iktusa izan nuen eta ongi nago, baina mugimenduetan zer edo zer nabaritzen dut, eta eskailera horietan txoratu egiten naiz. Medikuek ere esan zidan kontuz ibiltzeko, eta horregatik ez naiz igotzen. Lakuntzan, 2019ko maiatzean Nafarroako IV. Ezkilazainen Topaketa egin zenean eta han Nafarroako Ezkilazainen Elkartekoen omenaldia jaso eta ohorezko presidente izendatu nindutenean Lakuntzako ezkila dorrera igo nintzen. Igotzeko eta jaisteko askoz hobea da Lakuntzakoa, zelaia delako. Egun hartan ezkilak jo nituen. Gaur egun ere ezkilak jotzeko trebe naiz, baina Arruazuko ezkila dorrera ezin naiz igo.

Aspaldiko partez, sistema automatikoarekin jotakoen partez, ezkilazainek jotako ezkila errepikak entzuteko aukera izan da Arruazun. Sei errepika guztira, sei ezkila jotzailek egindakoak. Pozik?

Oso. Ezkilazain asko etorri dira: lakuntzarrek, Ihabarkoa, Iruñekoak, Santakarakoa, Iruñeko katedralekoak, Artaxoakoak... Ezkilak sistema automatikoarekin entzuten ditudanean pena ematen dit. Niretako makinakoak penagarriak dira. Zer esango dizut, ez zaizkit batere gustatzen. Pentsatzen dut: "ño, ni goien banio...". Arruazun beste norbaitek nire tokia ez hartzeak pena ematen dit, baina hori da dagoena.

luzez ezkila jotzailea izan zela nabarmendu zen. "Tomasek 60 urte luzez jo ditu ezkilak eta Arruazu ezagun egin du. Arruazuko Iturgain elkarteak antolatzen zituen ezkila jotze txapelketetan jendetza erakartzen zuen herrira, eta edozein lekutara joanda ere Arruazukoa zinela esaten bazenuen beti bateon batek esaten zuen: "a.. ezkilaren herrikoa". Beraz, hori guztia eskertzeko elkartu gara gaur Tomasengurua" azaldu zuen Zubeldiak.

Tomasek makina bat oroigarri jaso zituen. Hasteko loreak, parrokiako juntaren eskutik. Segidan Izurdiagako Forjas Brun anaien burdindegian egindako oroigarri polita, bi ezkilarekin, Arruazuko Udalararen eskutik; argizaiola baten gainean zurez landutako ezkila, Olaztin egina, ezkila jotzaileen eskutik; eta, bukatzeko, zapi gorria, Santakarako Jose Ochoa ezkila jotzailearen eskutik. "Nafarroako Ezkilazainen Topaketa Santakaran izanen da. Hango kanpandorre-



Tomas Ganboa, herritarren eta ezkilazainen eskutik jasotako oroigarri guztiekin.

ko eskailerak hemengoak baino errazagoak dira, hortaz, zu han egoteko nolabait moldatuko gara. Gure ohorezko lehendakaria zara, eta han nahi zaitugu" gonbidatu zuen Ochoak.

Ohorezko aureskuaren ondoren, Tomas Ganboak hitza hartu zuen. "Gustura aritu naiz ezkilak jotzen, pozik. Eta herri guztiari eskerrak eman nahi dizkiot omenaldi polit honengatik. Baita ezkilazainei ere. Eskerrik asko" eskertu zuen, negar malkoei ezin eutsi. Bukatzeko, herri bazkariak omenaldiari jai giroa jarri zion.

Historia

Tomas Ganboa 18 urterekin hasi zen ezkilak jotzen. "Arruazuko sakristaua eta ezkila jotzailea, Tximooneko Pedro Arratibel, Iruñera joan zen bizitzera eta hark aita animatu zuen sakristau jartzeko. Aitak ardura hartu, eta ni ezkilak jotzen hasi nintzen. Bakarrik hasi nintzen, ez nuen irakaslerik izan. Probak egin eta aurrera" azaldu zion Ganboak Guaxeri.

Tomasek soka sistemaren bidez jotzen ditu ezkilak, ez du mihia-ri helduta jotzen. Pedro Arratibelek ere horrela egiten omen zuen. "Erosoago iruditzen zait, eta soinu konbinazioak egiteko hobia da. Sistema honekin aprobetxatzen dut mihia gora mugitu eta ezkilaren goialdean jotzeko, eta baita mihia behera mugitu eta ezkilaren behealdean jotzeko ere. Horrela, soinu ezberdinak ateratzen ditut. Izan ere, mihia helduta, pultsuan jotzen denean, erritmoa bera baita: tin-tan, tin-tan... Baina sokekin askoz ere soinu gehiago sortzen dira" aipatu zuen Toma-

sek. "Soka sistemarekin jotzeko, sokak ongi jartzen jakitea ezinbestekoa da, soka milimetrora tenkatzea, neurrian, eta indarra baino gehiago, teknika kontua da" gaineratu zuen. "Soka sistemaren bidez jotzea kosta egiten da, baina soinu konbinazio ederrak lortzen dira. Jotzen ditudan errepiken konbinazioak eta erritmoak %80 nik sortutakoak dira eta gainontzekoak, entzunez edo belarriz ikasiak" adierazi zuen.

Ezkila bakoitza mundu bat dela aipatu zuen Tomasek. "Arruazukoak onak dira jotzeko, doinuua fina da" nabarmendu zuen.

1967an Ihabarren Ezkila Jotze Txapelketa Nazionala egin zuten, hara aurkezttera animatu zen, eta baita irabazi ere. Urte batzuk geroago Iturgain elkarteak Arruazun ezkila jotze txapelketa antolatzen hasi zen. "10 urte inguru egin ziren. Ia urtero nik irabazten nuen. Jendeak esaten zidan, txantxan, herritarra nintzela, eta, horregatik, penalizazioaren bat jarri beharko lidaketela" gogoratu zuen, irribarrez. Horretaz gain, Huitzin eta Lekunberrin irabazi zuen, epaimahaietan ere aritu da, eta makina bat erakustaldi egin izan ditu, Lekunberrin, Iurretan, Elizondon, Amurrian, Zegaman...

Iruñeko katedrallean ere egon izan da jotzen. "Maria ezkila ez. Izugarritzko mihi handia du eta ezin da jo. Beste ezkila dorrean beste lau ezkila daude, Gabriela izenekoa eta beste. Arotz batek soka sistema prestatu zidan eta nahiko ongi jo nuen" gogoratu zuen. Ez da erreleborik egon eta, egun, Arruazun ez dago ezkila jotzailerik, baina agian, norbait, animatu daiteke. Nork daki?

Astekoko greba eta mugagabekoaren itzala

Cementos Portland Valderrivas taldeko Olatzagutiko porlandegian langileak aste bateko greba egiten ari dira. Lan hitzarmenean txanda kontratua jasotzea eskatzen ari dira langileak. Aldaketarik ez bada, 19tik aurrera greba mugagabera deitu dute

OLATZAGUTIA

Porlandegiko langileak greba eginez enpresako lan hitzarmena berritzea eskatzen ari dira. Aste honetan greba egingen dute eta heldu den astera lanera bueltatuko dira. Baina hurrengo egunetan egoera bideratzen ez bada, hilaren 19tik aurrera greba mugagabera deitu dituzte langileak.

Garagarrilaren 22an izan zuten zuzendaritzak eta enpresa batzordeak azken bilera, "eta hasieratik jarri zigun hurrengo bilerarako data: irailak 21. Egun osoa negoziatzeko ibilita... Hau hautsi da pentsatu genuen. Langileen asanblada egin, eta handik grebara". 64 langile izan ziren batzarrean, eta 47, grebaren alde egin zuten eta 17 ez gelditzearen alde agertu ziren. Enpresa batzordean ELAK 5 ordezkari ditu, UGTk 3 eta CCOOk 1. 102 langile ordezkatzeko dituzte.

Aurretik

Testuingurua emateko atzera egin du enpresa batzordeko kide eta ELAKo ordezkari Juanje Lizarraga Zelaia: "gaia 2016ko hitzarmenetik heldu da. Enpresak 30 langile irteteko itxaropena eman zuen. Eta, era berean, langile berriendako soldata taula berriak jarri zizkigun". Orduetik bost langile besterik ez dira atera. Lizarragak jakinarazi duenez, ateratzeko gelditzen ziren langileendako irteteko beste modu bat proposatu zuen enpresak 2019an. "Onartu ez genuen baldintza bat zuen: 2028ra arte soldata taulak ez ikutzea".

2016ko lan hitzarmenaren indarraldia 2019an bukatu zen. 2020an hitzarmen berriaren negoziazioarekin hasi ziren. Baina pandemia iritsi zen. ELAKo ordezkari Ruben Garciak azaldu duenez, enpresak taldeko porlandegi guztietan aldi baterako enplegu erregulazioko espedienteaz nahi izan zuen. "Ez



Porlandegiko langileak lantegirako zubian daude kontzentratuta.

TXANDA KONTRATUAREKIN "GUZTIENDAKO ZERBAIT LORTZEA NAHI DUGU"

genuen bideragarria ikusten stockik ez zegoelako". Espedienteaz ezartzeak langileak soldataren %85ekin utziko zituen. Baina zuzendaritzak 2020ko hitzarmenari uko egitea eta zegoenari segida emateko eskatu zieten taldeko enpresa batzorde guztiei. Olatzagutikoak izan ziren azken neurri hori onartu ez zuten taldeko bakarrik.

Negoiazioa

Lan hitzarmena berritzeko bilerak lastailan hasi zituzten. Orduetik 11 bilera egin dituzte. "Hasieran bazirudien zerbait adostuko genuela. Enpresak ez zigun onartu ez soldata igoerarik ez inongo gastu modurik. Hori onartu genuen. Gure asmoa zen taulak guztiz aldatzea, desagitea. Hori gastua izanzen zenez, ezezkoa eman zuen, eta alde batera utzi genuen", azaldu du Lizarragak.

Hitzarmenean lortzen zen igoera soldata guztiei aplikatzea eskatu zuten.

Langileen ordezkariak "jubilatzeko txanda kontratua lan hitzarmenean jasotzea eskatu genuen, gu guztiondako". Legean jasotakoa gehitzea da eskaera. "Printzipioz, diru gasturik ez dauka". Lizarragak azaldu duenez, "enpresak aukera hori onartu du bakarrik ateratzeko falta diren 18 langileendako. Aspaldi egon behar zuten lantegitik kanpo". Enpresa batzordeak zuzendaritzaren eskaera horri ezezkoa eman dio. Garciak gaineratu duenez, txanda kontratuarekin "plantilla guztia rendako zerbait lortzea nahi genuen". Lizarragak azaldu duenez, langileen batzorde besteko adina 56 urtekoa da. "txanda kontratua onartzea izanzen zen esperantza txiki bat 62 edo 63 urterekin aurrejubiliazioa izateko. Eta, era berean, plantilla gaztetzeko". ELAKoak gaineratu duenez, "enpresak ez du errespetatzen langile plantilla mantentzea. Hori ere produkzioaren araberakoa izanzen dela esaten du. Produkzioa jaisten bada eta ez badira langile gehiago behar... Hor ere ez du ezer jakiterik nahi".



'Mamoxarroak. Las máscaras de Unanu' liburuia aurkeztu zuten Unanun eta ondoren, Mamoxarron Txokoa mustu zuten.

Erkuden Ruiz Barroso UNANU

Ekainaren 29an San Pedro eguna izan zen, eta, beraz, aurreko asteburuan Unanuko festak izanzen ziren. Osasun krisialdia dela eta, ospakizunak bertan behera utzi zituen kontzejua, baina ekimen berezia antolatu zuen: mamoxarroen liburuaren aurkezpena egin zuten, eta Mamoxarron Txokoa deitutako inauterien eta Unanuren inguruko museoa mustu zuten. Ekitaldian Obere-na dantza taldeak emanaldia eskaini zuen, eta erakusketa gela aurrekuarekin zabaldu zuten. Egun handia izan zen Unanun.

Mamoxarroak Unanuko nortasunaren parte dira. Herriaren historiako elementu garrantzitsua. Joseba Urretavizcaya Ergoienako herrian maskara "batzuk" zeudela jakin zuen. Maskara horiek katolak dira, Unanuko inauterietako mamoxarroek eta mutuek aurpegia estaltzeko erabiltzen dituztenak. "Bazuten magia pixka bat". Katolak ezagutu nahi zituen, eta horretarako Angel Auzmendi unanuarrekin elkartu zen. "Xarmangarriak irudititu zitzaizkidan Unanu eta ingurua". Auzmendi eta bere taldeari Mamoxarren eta Mutuen berregiteak egiteko laguntza eskatu zion. "Eta herriaren laguntza osoa izan dugu". Egingako argazkiekin eta Álvaro Bermejoren testuekin liburu bat argitaratu dute: *Mamoxarroak. Las máscaras de Unanu*. Urretavizcaya liburuaren editorea da, eta azaldu zuzenez, liburu "oso zaindua" da,

Maskaren atzean, herri bizi bat

Mamoxarroei balioa emateko Mamoxarron Txokoa mustu dute Unanun. Gainera, 'Mamoxarroak. Las máscaras de Unanu' liburuia aurkeztu dute larunbatean egingako ekitaldi batean

paper bereziarekin eginga. Edizio berezia da.

Liburuan jasoa

"Liburu hau ospatzeko arrazoi bat da". Bermejok aspaldi ezagutu zituen katolak. "Ni aspaldi hasi nintzen hona etortzen, nire neska lagun ohiarekin, Begoña Ameztorekin. Lizarragako eta Unanuko senideak zituen. Ikusi nuena- rekin maitemindu nintzen". Familiako inork ez zion maskarek buruz hitz egin. "Liburu bat irakurritz jakin nuen Unanun burdinazko maskara batzuk zeudela, eta Begoñaren amari galdetu nion ea zer ziren Unanuko inauterietan ateratzen zituzten maskara horiek". Ez zidan asko kontatu. 30 urtez Ergoienara joaten egon zen, eta ezin izan zituen inoiz ikusi: "edo ez zen biltokiko giltza agertzen edo gordetzen zituen auzokidea ez zegoen..."

Katolen inguruan irakurtzen jarraitu zuen Bermejok, egun batean Pio Caro Barojarekin elkartu zen arte. "Teoriaren arabera, inauteriak kristautasunaren eta garizumaren ondorio dira. Baina, aurretik, zer zegoen?". Orduan, Caro Barojak esan zion hego haizeak hostoei buelta ematen ziela, hau da, "interpretazio asko egin daitezkeela, beste irakurketa batzuk egin zitezkeela". Historialaria datuetan oinarritzen zen, baina baliteke maskara horiek kristautasun aurrekoak izatea. "Inauteriarekin lotuta, baina ugalketa

MUSEOAN INAUTERIEN ETA HERRIAREN HISTORIA ETA ESENTZIA LABURBILDU DUTE

errituekin zerikusia zutenak. Sakrifizio errituekin lotura izan zezaketen ere, makilekin egiten den biolentziagatik".

Historia

Argazkiak egitera etorri zirenean, inguru horretan Ondatz herria zegoela esan zioten. Jentilen herria zen. "Hezurak eta harriak omen zeuden, baina errepidea egitean desagertu ziren, eta orain ez da ezer gelditzen". Gauzek diruditen baino balio handiagoa dute. "Er-lazionatzen hasi ginen: Beriain mendi sakratua zen, eta bertan kultuak egiten ziren...". Orrialdeak bakarrik idazten ziren. "Inauteriak baino zerbait gehiago dira". Historia idatzita ez dagoen arren, "hor dago", eta azaleratzen joaten dela azaldu du idazleak. "Jentilek ardiak eta burdina ekarri zituzten. Hemen, aurretik, ez zen lantzen. Zer kasualitatea maskarak bur-

dinazkoak izatea eta hemen egitea, artzain herri batean, jentilen herri batean".

Maskararen atzean herri baten eta lurralde baten bizitza dagoela esan zuen Bermejok. "Eta ez galdu. Egonen da egun bat jendea maskara horiek ikustera etorriko dena, eta herriari bizitza emanen diote". Belaunaldi askoren aurpegiak estali dituzte maskarek, "eta jarrai dezagun hau guztia ospatzen". Hamabi katola zeuden, eta sei iritsi dira gaur egun arte. "Ez galdu maskarak, eta, posible bada, falta direnak berreskuratu". Ganbaretan begiratzeko aholkua plazaratu zuen.

Fernando Hualde antropologoak idatzi du liburuaren hitzaurrea, eta herri batean liburu bat ateratzea "arrakasta bat" dela esan zuen. Editorialen interesak beste batzuk izaten dira, eta unanuarrek "zorionekoak" sentitu behar dira. "Gertatzen zaigu inauterien bezalako tradizioekin haiekin bizitzera ohituta gaudela, eta ez ditugu nabarmentzen". Baina zerbait oso garrantzitsua da. "Hemen zerbait berezia dago, bai ondasun inmateriala (inauteriak) bai modu materialean ere: katolak eta dantzak". Hori dena orain liburu batean jasoa gelditu da. "Zaindu behar ditugu gauza hauek. Gure sustraiak dira, gure izaera". Kanpotik zain-tzera eta gordetzera inor ez dela etorriko esan zuen antropologoak.

Museoa

Eta unanuarrek aholkua jarraituko dute, eta ongi gordeko dituzte katolak. Mamoxarron Txokoa mustu zuten larunbatean ere. Areto txikia da, baina bertan herriaren historia eta esentzia laburbildu dute. Gela batean inauterietako mamoxarroaren eta mutuaren jantziak daude, eta erdian gaur egun arte gorde diren sei katolak. Inauterietako argazki zaharrak ere jarri dituzte, gordetzen dituzten bakarrenetakoak.

Mamoxarron Txokoaren korridorean festetako argazki zaharrak jarri dituzte. Herriarrek gordeak zituzten argazkiak dira. Berrehun bat jaso dituzte. Asteburuan unanuarrek argazki zaharrak ikusten gozatu zuten, pertsonak identifikatzen eta garai bateko festak gogoratzen. "Haiek bai zirela festak" esan zutenak ere izan ziren. "Jan, edan eta dantza". Beste gelatxo batean Unanuko historia biltzen duen kronologia jarri dute.



Leire Sagarzazu Ibarguren, mikrofonoarekin, eta Sara Legarrea Gorritz, eskuinetik lehena, presoei azalpenak ematen. UTZITAKOA

Eskaintzak dituzten liburuak

Lanbide Heziketako Hezitzaile Eskolako Gizarte Integrazioko 2. mailako ikasleek emakumezko presoen errealitatea ikustarazteko liburu bilketa egin zuten, eta haiei zuzendutako eskaintzak idaztea eskatu zuten

Alfredo Alvaro Igoa LAKUNTZA

Ikasturtea despedituta, dagoe-neko hezitzaileak dira Leire Sagarzazu Ibargoiaren lakuntzarra eta Sara Legarrea Gorritz. Ikasturte akabera berezia izan dute, beraien proiektu batek Iruñeko espetxe barrura eraman zituelako garagartzaroren 30ean. Kartzelan dauden emakumezkoen egoeraren berri emateko, haiek jendarteari ikustarazteko eta gizarte sentsibilizatzeko proiektua hasi zuten ikastetxean Emakumeen Egunaren harira.

Legarreak azaldu duenez, "gehienbat ikusi nahi genuen nolakoa den emakumezkoen bizitza kartzelaren barruan. Zeren, gehienetan, gizonezkoen mundua dela ikusten dugu, eta gizonezkoendako dagoela prest kartzela". Sagarzazuk azaldu duenez, haiek izandako esperientziarekin ondorioztatu dute "emakumezkoek

gehiago sufrizten dutela preso direnean, baita gizartean ere. Horrek borroka gehiago behar du, laguntza handiagoa eta gehiago ezagutaraztea". Legarreak gaineratu duenez, jabetu dira, "emakumezkoek lan gehiago egin behar dute gizarte horretan sartzeko. Kartzelan, esaterako, gu egon garen emakumezkoek gehiago lan egin behar dute beraien kalteak murrizteko". Gizarte patriarkal batean kartzela emakumezkoendako "zama bikoitza" dela gaztigatu dute: "gizonezkoendako osatutako sistema bat da, ez dago emakumezkoendako

"EMAKUMEZKOEK GEHIAGO SUFRITZEN DUTE PRESO DIRENEAN, BAITA GIZARTEAN ERE"

eginda. Beraiek zigor bat baino gehiago jasaten dute".

Egitasmoa

Emakumezko presoendako liburu bilketa sustatu zuten. Liburuak presoei zuzendutako eskaintza izan behar zuten idatzita. "Hasieratik liburu horiek kartzelara sartu nahi genituen, eta emakumezko presoei erakutsi nahi genien gizartean badela jendea beraian pentsatzen duena, beraiei lagundu nahi diena", azaldu du Sagarzazuk. Madrilgo *Las Olvidadas* proiektuarekin ere gogoratu ziren ikasleak, kartzelara liburuak sartzen baitituzte. Presoen aldeko Salhaketa elkartearekin ere lan egin zuten ikasleak.

Liburu gutxi batzuk biltzea espero zuten. "Baina hainbeste zabaldu zen gizartean, espero baino liburu gehiago jaso geni-

tuen", azaldu du Sagarzazuk. Bostehun liburu baino gehiago jaso dituzte. Denetariko generoko liburuak eman ditu jendeak emakumezko presoendako. Gehinak, gainera, eskatu bezala eskaintza idatzia zuten, "idatzi dutenei eskertzen diegu".

Kartzelara

Liburuak espetxean sartzea "zaila egin zaigu, benetan. Baina *Las Olvidadas*ekoekin hitz eginez eta kartzelako zuzendaritzarekin hitz eginez sartzea lortu dugu", azaldu du Sagarzazuk. Eta liburuarekin batera, haie-tako zazpi ere sartu ziren kartzelara. Jendeak liburuetan idatzitako eskaintzak irakurri zituzten lehenik eta, ondoren, poesia errezitaldia izan zen kartzelan. Gaur egun Iruñeko espetxean 25 emakumezko preso daude, haietako 14rekin egoteko aukera izan zuten. "Gainontzekoak pandemiagatik berrogeialdian zeuden. Ateratzeko baime-nak dituzte, eta bueltan isolatu-ta egon behar dute".

Esperientziak, Legarreak: "nahiko positiboa izan da. Guk espero genuena baino askoz hobea izan da. Emakumezko presoek liburuak irakurtzea espero genuen. Baina liburuak asko gustatzen zaizkie eta zer liburu mota eta zein titulu zeuden galdezka zeuden. Guztiak irakurtzeko prest eta gogoz zeuden".

Sagarzazuk gaineratu duenez, "ikaragarri irakurtzen dutela azaldu digute, beti daudela liburuak eskatzen edo begiratzen. Hori ikusita, proiektuak eragin handia izan du. Ez genuen uste presoek hainbeste irakurriko zutenik". Ideia berretsi du Legarreak: "preso heldu batek esan zigun beste kartzelatan ez dela hainbeste irakurtzen, Iruñekoan asko irakurtzen dela eta irakurri edo beste gauza batzuk ikastea nahi duen talde handi bat dagoe-la. Beraz, positiboa izan da". Emakumezko presoek ekimena "asko eskertu" zieten eta "gomen-dioak eman zizkiguten gizartean borroka egiteko eta gure helburuak aurrera eramateko", azaldu du Sagarzazuk.

"HAMAIIKA ALDIZ ESKERTU ZIGUTEN LANA. PARTE HARTZEA IKARAGARRIA IZAN ZEN"

Ikasleen liburu ekarpenarekin emakumezko presoen moduluan haiendako liburutegia sortu da. Sagarzazuk azaldu duenez, emakumezko presoek "nahikoa presioa egin dute beraien moduluan liburutegia egiteko. Tokirik ez zegoela esaten zieten. Baina emakumezkoek nahi zuten lortutako liburuak han egotea, beraienda-ko zirelako eta beraiek nahi zituztelako".

Gogoko liburuak aukeratuta ziegara bueltatu ziren emakumezko presoak. Gainontzeko irakurgeta liburutegirako bidea hartu zuten. "Batzuek liburutegira joatera itxaron dute, liburuak lasai aukeratzeko, eta eskaintza guztiak irakurtzeko", azaldu du Legarreak. "Beraien artean partekatuko dituztela esan digute", gaineratu du Sagarzazuk.

Espetxeaz

Kartzelaren "inpresio nahiko onarekin" ateratzen, "hotzagoa izanen zela pentsatzen genuen", azaldu du Legarreak. Emakumezko presoekin izandako "harreman oso onak" horretan lagundu die, "kristoren harrera egin ziguten. Hasieratik oso eskertuta zeuden. Harremanetarako nahia zeukaten. Ez ziguten ezer txarrik erakutsi. Guztiek irakurri nahi zuten, liburu bila zeuden. Hamaika aldiz eskertu digute lan guztia. Parte hartzea ikaragarria izan zen".

"Gizarteak inposatu duen ikuspegi hori guk ez dugu. Guri berdin zaigu zer egin duten beraiek, pertsona begiratzen dugu; pertsonak dira garrantzitsuak, ez eraikina. Eta guri kristoren harrera egin digutenez, guk ez dugu pentsatzen eraikina zer den, baizik eta barruan zein dauden" esan du Sagarzazuk. Legarreak gaineratu duenez, "gizarteak aldatu behar du, pertsona horiek hartzeko, integratzeko". Eta aitortu duenez, "pertsona barruan uztea pixka bat gogorra egin zitzaigun".

Biak ere pozik daude ikasketak bukatu eta ikastetxean ondarea utzi dutelako. "Gure proiektua gustatu zaienez, hurrengo urteetan aurrera egingen du, murriztagoa bada ere" argitu du Sagarzazuk. "Emakumezkoek eskatzen dituzten genero edo gaiekin segitu nahi dute. Horiek bildu eta kartzelara eramane dituzte. Denetariko liburuak hartu beharrean, liburu zehatz batzuk", azaldu du Sagarzazuk.

La Vasco Navarrako langileak, irailera begira

Aurreko asteetan lan uzteak eta greba eguna egin dituzte La Vasco Navarra enpresako langileek. Enpresa batzordean gehiengoak duten LABek eta CCOOk deituta mobilizatu dira langileak. Zuzendaritzak maiztean egindako proposamena indarrean jarri zuen garagarri-laren 28an. Baina erabaki horrek ez ditu ase langileen aldarrikapenak. Opor garaia bertan denez, LABek eta CCOOk langileak asteazkeneko kontzentratzera deitu zituzten. Azkenean, erabaki hori bertan behera utzi dute. Irailean egingen duten batzar batean erabakiko dute udazkenean zein bide hartu enpresan lan baldintzak hobetzeko.

40 eta 49 urte artekoen txertaketa despeditzeaz

Osasun Departamentuak COVID-19aren kontrako txertoko 1.520 txerto jarriko ditu Irurtzunen (850) eta Etxarri Aranatzeko (570). 40 eta 49 urtekoek jasoko dute. Eta adin tarte hori ixteko asteartean Altsasun izanen da txertaketa. Bestetik, 18 urtetik gorakoek txertoaren data online aukera dezakete www.citasalud.navarra.es edo 948 370 130 bidez.

ALTSASU

LABek, ELAk eta CCOOk, hau da, enpresa batzordearen gehiengoak deituta, langileak kontzentrazioak egiten ari dira goizero lantegian bertan eta pankartan "lan eta etorkizun duina" irakur daiteke. Plantillaren %60 biltzen dela azaldu dute enpresa batzordeko kideek, "zeharkako langileak beldurratetik ez dira ateratzen", gaineratu dute. Azaldu dutenez, "enpresaren egoeratik, langileen artean haserre orokorra da, plantilla erreta dago".

Enpresa batzordeko gehiengo-kideek azaldu dutenez, 2017an enpresako zuzendaritzarekin akordioa itxi zuten. Haren arabera lau batzorde osatuko ziren lan osasuna, lan kategoriak, aurrejubilazioak eta berdintasun planak lantzeko. Salatu dutenez, "lau urtetan ez da aurreratu gai horietan. Lan osasunean eta lan kategorietan, pixka bat. Ez digute kasurik egiten. 2017tik gailtza horrekin eta uste dugu badela garaia gai horiek ixteko". Akordio faltatik, aurtan bere kontura atera direnek "dirua galdu" dutela nabarmendu dute.

Azaldu dutenez, "enpresak beti esaten du aurrera begiratzeko; baina txanda kontraturako langile gazteak badaude, aurrera begira, enpresan etorkizuna dutenak. Zuzendaritzak hor lan handia du, esaterako, behingogatik akordioak sinatzea". Batzordeak osatzeko eskatu, eta zuzendaritzak "baiezkoa eman,



Sunsundeguin 270 langile daude eta enpresa batzordea UGTk (5), LABk (4), ELAk (2) eta CCOOk (2) osatzen dute. UTZITAKOA

Sunsundeguin lan eta etorkizun duin eske

Sunsundegui enpresako langileak horretan ari dira azken hiru astetean, 10:00etatik 10:15era enpresan bertan bilkurak eginez. Lan baldintzak hobetzeko, zuzendaritzari "hitz egitera eseri, negoziatzea eta akordioak ixtea" eskatzen diote

baina ez du ezer egiten. Guk sinatutako akordio batzuk ez dituzte aurrera eramaten".

Mehatxupean

Hiru sindikatuetak ordezkariek azaldu dutenez, "enpresak urtero asko fakturatzen du: 2019an 70 milioi euro izan ziren, errekorra. Baina urte pila batean ez du irabazirik izan". Pandemia ere iritsi zen. 2020ko bukaeran zuzendaritzak esan zuen "dirurik ez zuela enpresa aurrera eramateko, soldatak pagatzeko". 4,5 milioi euroko mailegua eskatu zuen. Soden enpresa publikoak 3,4 milioi euro eman zituen, eta bankuek 1,1 milioi euro. Sodenak, berme bezala, langileek soldata %10 jaistea eskatu zuen. "Bai enpresa batzordeak bai zuzendaritzak ezezkoa eman genuen. Guk eskatu genuen ikaragarri kobratzen duen zuzendaritzaren soldata jaisteko".

Eguberri betean jaso zuten berria, eta haren kontra egin zuten. "Soldatak eta aparteko ordainketa ez pagatzearekin mehatxatu gintuzten, koiuntura... Beta gutxiarekin, enpresa itxiko zen mehatxupean, akordio bat sinatzera behartu gintuzten", azaldu dute enpresa batzordeko gehiengo-kideek. Langileek, beldurrez, batzarrean hala erabaki zuten, "bost botogatik".

Horregatik, hiru urtez soldata izoztuta izanen dute.

Gogorarazi dute, 2017an zuzendaritzarekin adostutakoaren arabera urtero soldatak %2 igoiko zirela. "oso behetik gentozen, eta hori oinarria zen. Gaur egun, duela 20 urteko soldata bera kobratzen ari gara. Soldatak izoztearekin erosketa ahalmena galdu dugu". Enpresa batzordeko gehiengo-kideek gaineratu dutenez, "Sodenak jarri zuen zuzendaritza hau eta soldatan murrizketak eta kaleratzeak ezarri zizkigun. Lantegiak martxan segitzeko, langile bakoitzak bere soldataren %23-24 artean galdu du azken hamar urteetan. Hau da, langile bakoitzak 60.000 euro irabazteari utzi dio".

Aldi Baterako Lan Erregulazio Espedientea indarrean dago Sunsundeguin abendura arte. Enpresa batzordeko gehiengo-kideek ordezkariek azaldu dutenez, "ez genuen sinatu, kaleratzeak eta etorriko ziren beldurrez. Zuzendaritzak langileoi osagarri txiki bat ematen zigun epe baterako. Espedientea bozkatu eta plantillak ezezkoa eman zion. Hor langileen haserre ikusi genuen. Borrokatzera esan zuen, zuzendaritza honek ez baitigu kasurik egiten ez enpresa batzordeari, ez inori". Horregatik hasi dituzte mobilizazioak eta haien egoe-

ra publiko egiten. "Baldintzak behar ditugu".

Pausoak

Ordezkariek kexu dira lantegiak aurrera egiteko ahalegin guztiak langileen bizkar daudelako. Kexu dira "enpresaren kudeaketa nulua" delako. "Negoziatzeko eta akordioak ixteko" enpresa batzordearen gehiengoak bere aldarrikapenak zuzendaritzari jakinarazi dizkio. "Baina ez dugu erantzunik jaso. Enpresa batzordearekin duten komunikazioa zero da. Gauzak, gehienbat, kanpotik jakiten ditugu. Zuzendaritzak badaki haserre gaudela, baina ez du pausorik ematen".

Beraien egoeraren eta negoziatzeko nahiaren berri emateko, Sunsundegui enpresa batzordeko gehiengoak Nafarroako Parlamentuan ordezkatuta dauden alderdi eta koalizioetako ordezkariekin, Sodenako buruekin eta Mikel Irujo Amezaga Ekonomia eta Enpresa Garapenerako kontseilarekin bildu da. Lantegiko kontzentrazioekin segituko dute, baina ez dute baztertzun bestelako neurriak hartzea. Bide batez, UGT gonbidatu dute "borroka" batzeko. "Guk lantegiak segitzea, lan baldintza onak eta kalitatezko enplegua nahi ditugu. Horretarako negoziatu nahi dugu" gaineratu dute.

DUELA 25 URTE...



Euskararen astea Ziordian

Asteleheneetik ostiralera hartu zuen Euskararen asteak. Astelehenean, eguraldiak ez zuen lagundu, eta igerilekuan iragarritako txotxongilo emanaldia frontoian egin zuten. Asteartean, Felipe Uriarte mendizaleak Indiari buruzko hitzaldia eman zuen, eta gauean, haurrendako film emanaldia. Asteazkenean beste film bat eskaini zuten. Antzerki emanaldia izan zen ostegunean, ETBko kamerak lekuko zirela. Ostiralean, azkenik, Itoizekiko elkartasuna taldeko kideek hitzaldia eman zuten, eta, astea despeditzeko, afaria izan zen.

Etxarri Aranazko pilota eskola biziberritzeko deia

PILOTA / PALA Neska-mutikoak pilota eta pala eskolan izena ematera animatu dituzte

2021/2022 ikasturterako izena ematea zabalik du Etxarri Aranazko Gure Pilota klubak, uztailaren 16ra arte. Bi modalitate eskaintzen dituzte: pala eta esku pilota. Pala eskola oso egonkortuta dago –aurten 35 neska trebatu dira, eta, aparte, zortziren bat aritzen dira pala txapelketetan–, eta datorren ikasturterako harrera ona espero da. Baina pilota eskola ez dago bere unerik gozoean, bukatu berri den ikasturtean ez baitzen pilota talderik atera.

Horregatik, pilota eskola berpiztea eta biziberritzea du Gure Pilota klubaren helburuetako bat. Izan ere, Etxarri Aranatz pilotarien sorleku aparta izan da. Horren adibide dira Oscar Lasa, Aitor Zubieta eta Adur Lasa, Etxarriko taldean trebatu zirenak. Berriro ere Etxarri Aranazko pilota eskola martxan



Pala egonkortuta, pilota indartu nahi da.

jarri nahi da, eta neska-mutilak bertan izena ematera animatu dituzte.

Pilota eta pala taldeetan izena ematea zabalik dago, palaaris@gmail.com posta elektronikora idatziz edo 638 138 231 telefonora hots eginez.

PILOTA Sakandarren arteko lehia Binakako Sanfermin Torneoan

Atzo eman zitzaion hasiera Binakako Sanferminetako Torneoari, Baiko adarreko kanporaketarekin. Olaizola II.ak eta Mariezkurrena II.ak Urrutikoe txea eta Albisu izan zituzten aurkari.

Gaur, ostirala, Aspeko kanporaketa jokatu da eta Eibarko sustatzaileak jaialdi oso erakargarria prestatu du Iruñeko Bom-

boneran, 22:15ean (ETB1). 2020 urteko Binakako Txapelketako txapeldunek, Joseba Ezkurdia arbizuarra eta Julen Martija etxeberriarra, atzera ere bikotea osatuko dute eta Peio Etxeberria eta Jose Jabier Zabaleta izanen dituzte aurkari. Tentsio handiko partida izango da, pilota zaleen ikusmina piztu duena eta Labriteko aforoa –602 pilota zaleendako tokia baimendu dute– zurrerik beteko duena. Irabazleak igandean jokatu den final handirako sailkatuko dira.

Sakandarrak, juniorren taldekako erlojupekoan onenak

TXIRRINDULARITZA Quesos Albenizek irabazi zuen junior mailako taldekako erlojupekoa, Sakana Groupen aurretik

Igandean Nafarroako taldekako Erlojupeko Txapelketa jokatu zen Tafallan, juniorren eta kadeteen mailan. Juniorren mailan, Quesos Albeniz-Burunda izan zen txapeldun handia. 22,4 kilometroak egiteko 29:22 minutu

behar izan zituen talde gorriak. Ia minutu bateko alde atera zioten bigarren sailkatu zen Sakana Group-Aralar taldeari (30:30). Kadeteen mailan (15 km), Quesos Albeniz 4. sailkatu zen (21:43) eta Sakana Group 6. (22:25)

Igor Arrietak Kern Pharma aukeratu du

TXIRRINDULARITZA Uharte Arakilgo afizionatuak Lizarte taldetik sortutako Kern Pharma aukeratu du datorren urtean profesionaletan debutatzeko. Arrietarendako 'hazten jarraitzeko toki egokiena' da Pablo Urtasun kirol zuzendari duen taldea

Maider Betelu UHARTE ARAKIL

Igor Arrieta Lizarragag datorren urtean profesionaletara salto egingen du Lizartetik jaiotako Kern Pharma taldean. Jakina denez, Pablo Urtasun da Kern Pharma taldeko kirol zuzendarietako bat eta urdiaindarrak egun 23 urtez azpiko Espainiako erlojupeko txapelduna den Igor Arrieta izanen du bere esanetara datorren denboraldian. "23 urte azpiko bi txapeldunak, Igor Arrieta eta Ivan Cobo 2022an profesional mailara igoko dira gurekin. Lizarten trebatutako beste bi talentu dira, eta hori albiste handia da guretako, ilusio handia egiten diguna" nabarmendu du Kern Pharma taldeak.



Igor Arrieta, Espainiako Erlojupeko Txapelketa irabazi zuenean. FEDERAZIOA

Afizionatueta debut ikusgarria

Igor Arrietak afizionatu mailan debut ikusgarria egin du. Balentziaga Memorialean bigarren eta Santikutz Klasikoan 3. sailkatu eta gero iritsi zen bere lehen garaipena, maiatzaren 16an, Iturmendiko Trofeoan, aldi berean Nafarroako Errepide Txapelketa zena. Horren ondotik garai penak iritsi ziren, bata bestearen atzetik: uharte arakildarra Beasaingo Loinaz lasterketa ezagunean garaile izan zen, eta segidan bere lehen itzulia irabazi zuen: Volta Castelló. Espainiako Txa-

pelketan ere sekulako lana egin zuen, Espainiako erlojupeko txapelduna baita.

Igor Arrietak argi du Kern Pharmedan jarraitu nahi duela. "Hazten jarraitzeko toki egokiena da hau. Txikitatik Lizarte izan dut gustuko, talde honetatik txirrindulari handiak atera direlako. Eta profesionaletara Kern Pharmedekin salto egiteko aukera eman didatenean, nire one-na emateko ilusio handia sentitu dut" azaldu du abenduaren 8an 19 urte beteko dituen txirrindulari sakandarrak.

Igor Arrietak txirrindulari osoa izan nahi duela nabarmendu du. "Txirrindulari osoa izan nahi dut, erlojupeko onak egiteko trebe izan eta mendian ongi dabilena. Itzuli handietan ona izan nahiko nuke. Orain arte 23 urtez azpikoan aritu naizen bakarrean ongi ibili nintzen –Volta Castelló, uharte arakildarrak irabazitakoa–, baina pentsatzen dut profesional mailan beste kontu bat izango dela". Gogotsu dago, eta argi du, aldi berean, Goi Mailako Mekatronika ikasketekin jarraituko duela.

Regilendako mendiko saria

Asteazkenean kadeteen mailako III. Urdiain Saria jokatu zen (56 km), tartean Altamirako igoera hartzen zuena. Esprintean Gama-Muruzabaleko Nikol Gorostieta gailendu zen (1:28:05), eta Top-Tenean 2 sakandar sailkatu ziren. Sakana Groupen Aritz Oiarbide 9. izan zen, eta Quesos Albenizko Mikel Regil 10. Mikel Regilek irabazi zuen mendiko saria, Altamira igotzen lehena izan baitzen. Gainontzeko sakandarrak ere oso txukun ibili ziren.



Asteazkenean kadeteen lasterketa jokatu zen Urdiainen.

"Espainiako Txapelketan aritzea sekulakoa izan da"

IMANOL RAMIREZ SANTANO SASKIBALOI JOKALARIA

SASKIBALOA Nafarroako selekzioarekin Espainiako Minibasket Txapelketan aritu den sakandar bakarra da altsasuarra. Nafarroa finalerdietan erori zen, txapeldunaren kontra

Maider Betelu Ganboa ALTSASU

Imanol Ramirez Santano altsasuarra 12 urte ditu, eta 7 urte-ekin hasi zen Altsasuko CBASK taldean. Agerikoa da saskibaloia bizi duela. Nafarroako selekzioarekin Espainiako Minibasket Txapelketan aritu berri da, eta egindakoarekin oso pozik dago. **Minibasket mailan jokatzeko duzu, CBASK taldean. Zer moduzko denboraldia izan da hau?**

Pandemia dela eta, urte berezia izan da. Hasieran soilik entrenamenduetara joan ahal ginen, baina martxoan ligako partidak hasi ziren eta ongi aritu gara. Ligako 14 taldeetatik 6. sailkatu gara. Nik base postuan jokatzeko dut, hau da, joko antolatzaile postuan. Base eskolta naiz.

CBASK-en jokatzeko gain, Nafarroako selekzioarekin Espainiako Minibasket Txapelketa jokatu berri duzu. Nolakoa da selekzioan hautatua izateko prozesua?

Beste kirol batzuetan federazioak taldeetako jokalariek konbokatzen ditu zuzenean, baina Nafarroako Saskibaloia Federazioan ez da horrela. Federazioak saskibaloia klubetara eskatzen die nabarmen diren jokalariek entrenamendu berezi batzuetara bidaltzea. Entrenamendu horiek asteburuetan izaten dira, larunbat arratsaldetan eta igande goizetan, eta saioak egin ahala, jokalariek baztertzen doaz selekzioa 12 jokalariek eta 3 erreserbak aukeratu arte. Ni duela bi urte hasi nintzen entrenamendu hauetan. Izan ere, kategoria bakoitza bi kinta edo bi urteko jokalariek osatzen dute. Esaterako, aurtengo Espainiako Minibasket Txapelketan 2008 eta 2009 urteetan jaiotakoek parte hartu dugu. Jakina, lehen urtean zailagoa da zu selekzioarako hautatua izatea, urte bat gehiagokoak hobe aritzen direlako, eta ni ez ninduten aukeratu. Aurtengo 2. urtekoa nintzen, maila hobe ahal nuen eta selekzioarako hautatu ninduten.



Imanol Ramirezek selekzioan hautatua izateko prozesuan gogotsu hartu zuen parte.

"ESPERO BAINO HOBETO ARITU GINEN; NAFARROA EZ ZEN ASPALDI HORREN GOIAN SAILKATU"

Entrenamendu berezi horiek saio askotakoak izaten dira?

Bai, prozesu luzea izaten da. Aurtengo lehen entrenamendu jardunaldian 40 jokalariek hasi ginen. Aurrera egin nuen, eta azkenean selekzioa 12 partaideen artean aukeratu ninduten. Iaz, aldiz, 23. eta 20. postuen artean sailkatu nintzen eta ez nuen Espainiako Txapelketa jokatu.

Sakanatik jokalariek bakarra izan al zara beti?

Nire kategorian aurtengo bai. Duela urte bat Joyk ere probetan parte hartu zuen, baina ez zuten azken selekzioarako hautatu. Ni ere ez. Nik baino urte bat gehiago du. Maila nagusiagoetan beste bi sakandar aritzen dira, Atikilt eta Ane. Egia esan, entrenamendu horietan aritzen diren gehienak iruindarrak dira, Ardoi, Liceo, Aranguren Mutilbasket, San Cernin, San Ignacio... eta

halako taldeetakoak. Entrenamenduak Larrabiden egiten dira, eta nahiko gogorrak izaten dira, klubean egiten ditugunak baino gogorragoak. Larunbat goizetan ligako ohiko partida CBASK-ekin, eta arratsaldean eta igande goizean entrenamendu espezifikoa hauek. Ez naiz aspertzen, saskia izugarri gustuko dudalako.

Batzuk aurrera egin eta besteak bidean geratzea ez al da gogorra?

Bueno... Nik sistema hau gustuko dut. Gustura joaten naiz entrenamenduetara, lana ongi egiteko gogotsu.

Aurreko astean jokatu zenuen Espainiako Minibasket Txapelketa, San Fernandon (Cadiz). COVID-19 dela eta, osasun neurri berezirik hartu behar izan al zenuen?

Aste batean 3 PCR eta antigeno testa egin behar izan genituen, eta guztiok negatibo eman genuen. Finalera gure senitarteak joan ziren, baina gu ezin ginen beraien egon. Familiakoak partida bukaeran pabilioian ikusten genituen, distantziak hartuta. Agurtu eta gutxi gehiago.

Zer moduz joan zen Espainiako Minibasket Txapelketa?

Ongi. Bi maila daude, 1. maila, talde nagusienena -Katalunia,

Madrid, Valentzia...- eta 2. maila, gurea. Hasieran lau partida jokatu genituen. Lehena Muriaren kontrako joanekoa izan zen. Partida oso berdindua izan zen, baina azken laurdenean aurrera egin eta 69 eta 54 irabazi genuen. Bigarren partida erraza egin zitzaigun: 79 eta 55 irabazi genion Gaztela Mantxari. Hirugarrena Murtziaren kontrako bueltako partida zen; lehen laurden ona egin genuen, baina gero ez ginen fin ibili eta 52 eta 88 irabazi ziguten, errebantxa ederra. Eta laugarren partidaren atzera ere Gaztela Mantxaren kontra aritu ginen. Partida oso borrokatua izan zen, estu-estua, eta 62 eta 60 irabazita finalerdietara sailkatzea lortu genuen.

Finalerdietan nafarrek nor izan zenuen arerio?

Kantabria, talde oso ona. Hasieratik 5 eta 10 tantoren tarteko aldean hartu ziguten. Azken laurdenean 4 punturengatik galdutako hasi ginen, baina une horretan euren jokalariek onenak ateratu zituzten, guk faltengatik jokalariek bat galdu genuen eta azkenean 59 eta 74 hartu gintuzten mendean. Finalerdietan erortzeak pena eman zigun, baina gau horretan afari goxoa jarri ziguten, ordura arte elikagaia asko zaintzen baitziguten, eta gaitz erdi (kar, kar). **Espainiako Txapelketa batean finalerdietara iristea ez da gutxi.**

Bai, eta espero baino hobeto aritu ginen; esan zigutenez, Nafarroako selekzioa ez zen aspalditik horren goian sailkatu. Kantabriak irabazi zuen Espainiako Minibasketeko 2. maila; beraz, txapeldunaren kontra erortu ginen, eta gu 3. sailkatu ginen, 1. mailara igotzear. Sekulako esperientzia izan da, lagun asko egin ditut eta oso kontentua nago. Eta garrantzitsuenak da jokatzeko aukera izan dugula. Pandemiarekin ia urte bat egon ginen jokatu gabe, eta denboraldia gogoz hartu dut.

Datorren denboraldirako zer espero duzu?

Adinagatik mailaz igo naiz, eta haurren aurretiko mailan jokatu dut. Kategoriatik berria nire lehen urtea izango denez, zaila izango dut selekzioarako 12 hautatuen artean sailkatzea. Baina ni gogotsu nago, eta saiatuko naiz. Ilbetez jokatu da Haurren mailako Espainiako Txapelketa, Huelvan. Aurtengo ezin bada, ea datorren ikasturtean ahal den.



Sekulako denboraldia egin dute. CBASK

SASKIBALOA CBASK, txapeldun handia partidarik galdu gabe

Gizonezkoen haurren 2. mailan dabilen Altsasuko CBASK taldeak denboraldi ikusgarria egin du. Liga erregularra irabazi eta gero, Lauko Finalean Navarro Villoslada, Aranguren Mutilbasket eta Gazte Berriak taldeen kontrako partidetan gailendu zen, eta ligako titulua eskuratu du CBASK-ek, ligan eta Lauko Finalean partidarik galdu gabe. Meritu handia, ez bairik gabe.



Estarriaga, podiumaren gorenean. LARRATE

MENDI LASTERKETAK Asier Estarriaga garaile Larrate Trail laburrean

Igandean III. Larrate Trail mendiko lasterketa jokatu zen Zarraztelun, bi distantziatan: 22 km eta 10 km. Distantzia laburrean borroka oso estua izan zuten Beste Iruñako Asier Estarriaga, Navarro etxarriarrak eta Thibaut Bertrandek (Txurregi). Azkenean Estarriagak lortu zuen gailentzea (46:55), 3 segundoren aldearengatik. Proba luzean Hodei Lujanbio gailendu zen (1:33:32).

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN
BERRI ASTEAZKENEN EGUERDIA
BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 /
kultura@guaixe.eus

LARUNBATA 10

BAKAIKU Xabier Artiedaren
The Road antzerki eta musika
ikuskizuna.
12:30etan, eskolen parkean.



BAZTERRETIK

MIKEL MAIZA RAZKIN

Bildumazalea

Aste honetan pisuz aldatzen ari naiz. Etxe aldaketek ohiko bi gauza dakarte nahitaez: buruko mina eta kartoizko kutxa pila. Ene komikiak biltzean, hala ere, kutxa batekin nahiko eta soberan izan nuen. Egia esan, ez ninduen gehiegi harritu. Urteak dira liburutegietatik ateratzen dudala irakurtzeko material gehiena. Gero, Etxarrin ditudan komiki guztiez oroitu nintzen, eta hor kutxa baino gehiago kontainera etorri zitzaizkidan burura...

Txantxak alde batera utzita, pentsatzen hasi nintzen (kontu honekin pentsatzea arriskutsua da, eta buruko mina ematen du!): komikizaleek eta bildumazaleek laguntasun berezia dute. Batzuetan bata bestetik ezberdintzea zaila izaten baita, komikizalea bildumazale bihurtzen baita. Bilduma bat guztiz eskuratu nahi duelako, autore edo fikzio pertsona batekin obsesio bat duelako, fetitxismoagatik... Batek daki zergatik.

LAKUNTZA Xuar taldearen kontzertua.
19:00etan, kultur etxean.

ARBIZU Alaitzen. Udako kultur agitaraua: *Txingones de la Rnacle* mexikarrak.
Antolatzailea: Arbizuko udala.
19:00etan, plazan.

ALTSASU Haize Berriak bandaren *Udan Dantzan* kontzertua.
20:00etan, lortia zabalgunean.

Nire kasuan, komiki bilduma bat osatzea beti egon da irakurtzeko gogoei lotuta. Komikia, azkenean, testuz eta marrazkiz osatutako ipuina baita. Harren balio garrantzitsuenak abstraktoa da, bere barnean autorearen arimaren parte bat bizi baita bere lanaren bitarte. Bilduma bat osatzea ipuin bat aurkitzea da, eta, gero, eraikitzea da.

Bildumazaleak, bestalde, komikiaren azaleko balioari ez dio erreparatzen. Noski, bildumazalearen komikiak garbi-garbi egongo dira. Komikia, asko jota, behin irakurriko du, izorria ez dadin plastiko poltsetan sartuko baitu gero. Hainbeste du komikia maite, non santu baten errelikia balitz bezala tratatzen duen. Azkenean, zertarako? Armairuan hautsa hartzen uzteko? Are okerrago, handik urtetara bigarren eskuko merkatura atera eta harrekin espekulatzeke?

Martxa horretan jarraituta, zerk desberdintzen ditu Diogenes bat eta bildumazale bat? Ez dakit. Nik kutxa asko ditut oraindik mugitzeko, eta burua lehertzeaz daukat. Zuek ez ahaztu komikiak ongi tratatzeaz, baina ez itzazue gaixoak agobiatu ere. Osatu zuen bilduma zuen gogokoetan oinarrituta, eta ez beste inork esandakoan. Ezta nik esandakoan ere.

IGANDEA 11

ZIORDIA Haize Berriak bandaren kontzertua.
13:00etan, plazan.

LAKUNTZA Beietz! Taldearen *Zeltik Parranda* tour kontzertua.
18:30etan, plazan.

ALTSASU *Euskal Presoak Euskal Herrira* elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 12

ALTSASU Pentsiodun duinen aldeko elkarretaratzea.
12:00etan, udaletxearen aurrean.

ASTEAZKENA 14

LAKUNTZA Puzgarriak.
16:00etatik 20:00etara, igerilekuan.

ETXARRI ARANATZ Gazteendako escape rooma.
Antolatzaileak: Prebentzio zerbitzuak. Gidatzen du: *Tramankulu escape room*. Izena emateko: 679534481 edo 948406752.
Egunean zehar, kultur etxean.

IRURTZUN Zinema: *Jumanji. Siguiente nivel*.
22:00etan, Foru plazan.

OSTEGUNA 15

ETXARRI ARANATZ Emakume langileon eskolak: *Emakume langileenganako indarkeria eta biolentzia matxista*. Sakanako Itia.
18:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Pepa eta Kutxo pailazoak.
19:00etan, Dantzalekuan.

ETXARRI ARANATZ Etxarrin uda bizi: Mikel Urdangarin abeslariaren kontzertua.
21:00etan, plazan.

ALTSASU Gozamenez: Andoni Mutiloaren *Esnatu naiz* kabareta.
20:00etan, lortia zabalgunean.

ZORION AGURRAK



Markel Castro
Zorionak Markel!!!
Launbetontan 8 urte beteko ttuzu, gu mutil sinpatiko eta langile!!
Muxu haundi bet fameliyan partetik





HIZKETAN
beleixe 107.3 FM



Elkarritzeta guztiak
www.guaixe.eus

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskelak@guaixe.eus

► Eskelen tarifak: 50,82€ / 96,80€ / 130,68€
prezio hauek BEZa barne dute.

► Bazkideek % 10eko deskontua dute.

► Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

**IZARRA**HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU

Santa Cruz, 6

ETXARRI ARANATZ

Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

JAIOTZAK

- **Alazne Ruiz Etxeberria**, ekainaren 28an Lizarragan
- **Izar Hualde Moreno**, ekainaren 30ean Altsasun
- **Eider Paternain Razkin**, uztailaren 1ean Etxarri Aranatz
- **Oihan Barrena Antolin**, uztailaren 2an Altsasun

EZKONTZAK


- **Jose Emilio Samaniego Perez eta Maria Cerdan Sarazibar**, ekainaren 26an Irurtzun
- **Ainara Zubieta Gonzalez eta Jose Francisco Blancart Ramos**, uztailaren 3an Irurtzun
- **Arantxa Otamendi Agirre eta Juan Carlos Gomez Fernandez**, uztailaren 3an Bakaikun
- **Eneko Imaz Paredes eta Wilma Etelvina Chagas**, uztailaren 5ean Lakuntzan
- **Desiree Astiz Fernandez eta Gorka Gorriti Borreguero**, uztailaren 6an Uharte Arakilen

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN
DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.**JARRI ZURE
IRAGARKI LABURRA!**

948 56 42 75

iragarki@guaixe.eus

www.guaixe.eus/iragarkiak

**IRAGARKI SAILKATUAK****Saldu edo alokatu
Pabiloia (140m²) Ondarrian**Bulego, aldagela eta
komunarekin
Deitu 649 443 591**LANA/NEGOZIOAK****LAN ESKAINTZA**

Irurtzango Pikuxar taberna berrian lan egiteko zerbitzari bila: Tabernetako zerbitzari bezala esperientzia, euskararen ezagutza eta txandaka lan egiteko prestasuna beharrezkoak izango dira. Asteko 37 orduko kontratua edo asteburuetako kontratu partzialak eskaintzen dira. Interesatuak bidali Cva.pikuxarberria@gmail.com helbidera. Jasotako CV-ekin Lan Poltsa osatuko da.

IKASTAROA

Adinduendako ariketa fisikoko tailerra: Adindu hauskorren gainbehera funtzionala eta erorikoak prebenitzeko ariketa fisikoren profesional batek gidatuta. Etxarri Osasun Zentroan ostiraletan, 16:00etan. Informazio gehiago www.sakanamank.eus webgunean.

Oinarritzko gaitasun digitalak doako ikastaroa Irurtzun: Irailaren 20tik 24ra, goizeko 9:00etatik 14:15era. Kultur etxean. Informazioa eta izen ematea 948 600 412 tfnoan.

OHARRAK

Irurtzun Udako tailerra euskaraz: Abuztuaren 2tik 13ra, 11:00etatik 13:00etara. 2009 urtetik 2016 urtera bitartean jaiotakoak barne. Bi talde egingen dira A eta D ereduaren banatuta. Izena emateko epea uztailaren 15ean amaitzen da. Martxuetan izena eman eta 20 euroak ere bertan ordaindu. Aizpea elkarrekin antolatuta.

Lakuntzako festetako zapien banaketa: 2020 urtean jaito eta Lakuntzan erroldatuta ez dauden haurrek jaietan zapia jaso nahi badute, udaletxean izena eman beharko dute, uztailaren 23a baino lehen.

AHTren kontrako bizikleta martxa Iruñatik Atxondoko kanpaldira: Hiru etapen egingo da; uztailaren 28an Iruñea-Etxarri Aranatz, uztailaren 29an Etxarri Aranatz-Etura (Barrundia) eta uztailaren 30ean Etura-Atxondo. Eraman behar diren beharrezkoak (lo zakua, esterilla, aldatzeko arropa eta kanpaldian gelditu behar denak, behar duena ere) laguntza kamioiak eramango ditu etapen amaieran emateko. Otorduak hiru egunetarako 30 euro, egun baterako 12 euro. Prezio hauetan ez da kanpaldikoa sartzen. Bizikletak Iruñera bueltan eramango dira kamioiez igande arratsaldean, abuztuaren 1ean. Par-tahartzaileak antolakuntzaren ibilgailuetan bueltatuko dira. Izena emateko 675 613 651 tfnora deitu edo ahtrikeznafarroa@gmail.com helbidera idatzi. Argibide gehiago kanpaldiari buruz <http://noaltavahagelditu.blogspot.com> helbidean.

Arakilgo Udako Aisialdi Kanpusa: Aurtengo egoera bereziari erantzunez haur kopuru gutxiagoko bi txanda antolatu dira. Bietako bat aukeratu behar da: 1. Txanda Uztailak 19-30 eta 2. Txanda abuztuak 2-13. Adina 5-12 urte bitartean. Ordu-tegla goizeko 10:00etatik 13:00etara. Prezioa: Plazaz mugatuak direnez aukeraketa irizpideak honako hauek izango dira: 1. Arakilen erroldatuak, 2. Arakilen bigarren ebe-bizitza dutenak, 3. Irurtzun erroldatuak eta azkenik beste guztiak. Arakilen erroldatuak 40€ eta ez erroldatuak 50€. Izena emateko azken eguna uztailak 2. Informazio gehiago 634 584 223 telefonoz.

Iruñean Laba egitasmoa aurrera eramateko diru ekarpen bila: Euskara eta euskal kulturarentzat gune bat sortzera doaz Iruñeko Gazteluko plazan; Kulturgune bat, topagune bat, sorgune bat eta de-

non ekarpenekin eraiki nahi da Laba egitasmoa. Diru bilketaz aparte partaide aktiboak bilatzen dira etengabe birasmazten den gunea izan dadin. Diru aportazioa egiteko sartu <https://labur.eus/itsulapiko> itsulapiko plataforman. Informazio gehiago lortzeko edo harremanetan jartzeko, kuxkuxeatu www.laba.eus web orria, eta twitter / Instagram @labasarea kontuak.

Erabilgarri ez diren erradiografiak biltzea kanpainak farmazietan: Na-farroako Farmaziliarien Elkargoak eta "Mugarik gabeko Farmaziliarik" GKE-k bultzatutako kanpainak helburu bikoitza du: batetik, ingurugiroa zaindu, ondo birziklatzen ez diren erradiografiak oso kutsakorrek direlako eta bestalde, duten zilarren salmentarekin Gobernu Kanpoko Era-kundearen proiektuetara funtsak bideratzea. Erradiografiak bakarrik eman, sobre, informe eta beste-lakoak kendu eta gero. Kanpainak azaroaren 1era arte iraungo du.

Mikel Arregiri buruzko liburua honako tokietan erosi daitezke: Lakuntzan Ogi berrin, Aliproxen eta Estankoen; Etxarri Arana-tzen Kaxeta liburu dendan eta Altsasun Arkatz liburu dendan. 15 eurotan dago salgai.

1978ko sanferminak: Sanfermin es 78 Gogoan! elkartek eta Iruñeko Peñen Federazioak elkar-lanean gertaera haiei eta, batez ere, Peñen Ikerketa Batzordeari loturiko dokumentazioa eta informazioa berrikusteko proiektua martxan jarri dute. Gertaerekin loturiko informazioa eta, bereziki, Ikerketa Batzorde hark egindako lanarekin loturikoak bildu eta digitalizatzea da helburua. Ikerketa Batzorde harekin eta egun haietako gertaerekin loturiko informazioa eta/edo dokumentazioa duen pertsona guztiei haiekin harremanetan jar daitezkeen eskatu dute. E-postak: federacionip@hotmail.com edo info@sanfermines78gogoan.org.

iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburak.eus

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70

@Grupolrache

Grupolrache

www.tanatoriosirache.es



'Esnatu naiz' kabaretaren irudia. ELURETXEA

"Beyonce izan nahi duen baserritarra izan zen abiapuntua"

ANDONI MUTILOA IRAZUSTA ANTZEZLEA

Iortia zabalgunea Londresko The Pink Flamingo bihurtuko da datorren ostegunean, uztailaren 15ean, 20:00etan, 'Esnatu naiz' kabaretarekin

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Norberaren burua deskribatzean, normalean, lana aipatzen da, baina Andoni Mutiloa Irazustak ez daki bere lanak bere burua identifikatzen duen. Urte askoan kazetaria izan zen, baina urtebete eszedentzia hartzea erabaki zuen duela lau urte. Ez zuen argi zertarako, baina egunerokoan eten bat egin nahi zuen. Eta idazten hasi zen; lehendabiziko aldiz, bere buruarendako idazten hasi zen. Antzerkigintza eta dantza "betidanik" izan ditu gustuko, eta

artistaz inguratuta egon da beti, bat-batean, gutxien espero zue-nean, ikuskizun bat sortu zuen. "Bizitzak ematen dituen bueltak". Orain, artista moduan emanaldiak ematen ditu Euskal Herrian zehar *Esnatu naiz* kabaretarekin, eta ostegunean, uztailaren 15ean, 20:00etan, Altsasuko Iortia zabalgunean izanen da Gozamenez programaren barruan.

Barrukoa kanporatu duzula esan daiteke?

Fikzioa da *Esnatu naiz* kabaretean kontatzen dugun istorioa. Esze-

dentzia hartu berritan abiapuntua bururatu zitzaidan, eta esaldi bat zen: Beyonce izan nahi duen baserritarra. Istorio xeble bat egon zitekeela pentsatu nuen. Istorioa forma hartzen joan zen, eta hasi nintzen pertsona hori irudikatzen: nolako bizimodua zuen, zer gertatzen zitzaion eta abar. Orduan konturatu nintzen nire izaeraren zati asko papere-ra joan zirela. Neurri batean, nahiz eta fikziotik sortu, autobiografikotik badu istorio honek. Ederra iruditu zait hori, zerbait

sortzea, baina, aldi berean, fikzioa eta errealtatea nahastea.

Nortasuna, generoa eta sexu joera bezalako gaiak lantzen dira. Argi zeneukan mezua?

Hasieran, intuizioz hasi nintzen idazten. Ideia hori izan zen abiapuntua, eta pixkanaka istorioa forma hartzen hasi zen. Ez nintzen jabetzen istorio horren atzean zegoen mezuaz, zer mezu zabaldu nahi genuen. Baina konturatu nintzen mezu bat zegoela eta mezua oso inportantea zela. Aitortu behar dut ez zela lehendabizi mezua edo helburua, eta gero forma ematea. Ez, kasu honetan atzetik etorri zen. Hori bai, ikuskizunari forma zehatza ematen ari gintzaizkionean, oso argi izan genuen helburua; eta horrek asko lagundu zigun zabaldu nahi genuen mezua hobeto definitzen.

Erronka izan da?

Bai. Nireu ere ez nintzen jabetzen gai honen garrantziaz, gai honek niri sortzaile bezala suposatzen zidanaz, obra taularatzeak eta nik gorputza emateak suposatzen zuen erronkaz. Ezjakintasun horretan aurrera egin nuen, laguntzarekin. Lan honetan ezinbestekoa izan da laguntza. Konfiantza izan dut nigan, ariketa bezala.

Euskal Herriari kritika egiten diozu ere, ezta?

Atzera begira, gizarte bezala norabide onean goaz. LGTBI kolektiboa bere osotasunean ikusita duela 20 edo 30 urte baino hobeto dago. Urratsak ematen ari gara, eta txalotzekoa da. Gizarte osoaren inplikazioa behar dugu, eta oraindik bide luzea dugu egiteko. Azken asteetan gertatzen ari diren gertakizun batzuk horren adibide edo isla dira. Tamalez, ez gaituzte horrenbeste harritu: Basaurin gertatutakoak, Donostiako gazte batzuk eraso homofobo larriak zabaltzen aritzeak, A Coruña-ko erailketak... Ezin dut ulertu. Alde batetik, urratsak ematen ari gara, baina bestetik LGTBI fobiak sekulako indarra du, bereziki gazteen artean. Beldurra ematen dit horrek. Fobiak aurpegi asko ditu, eta oraindik Euskal Herriko herri txikietan bizitzeko arazo asko dituzte kolektibokoek. Hortik dator kritika. Hori guztia salatzen dut, eta, horrekin batera, esan nahi dut ezinbestekoa dela urratsak ematea. Antzerkiak gizartearen eraldatzeko duen indarrean sinisten dut. Neurri txikian, baina

horretan ari gara. Gainera, trans kolektiboarekin, duela gutxira arte ikusgaitasun gutxien izan duen kolektiboarekin.

Zer kontatzen du ikuskizunak?

Formatuari dagokionez, kabareta da; eta sekulako poza ematen dit horrek. Ikuskizunaren hasieran, Londresen bizi den Elur ikusiko dugu. Trans kolektiboko artista bat da, eta The Pink Flamingo klubean bere show-a egiten du. Jende asko etortzen da ikustera. *Esnatu naiz*-en egunean zerbait gertatuko zaio, eta ezin du ohiko showarekin aurrera egin. Etxera bidaliko du publikoa, baina publikoa ez da mugitzen; eta Elur bere istorioa kontatzen hasiko da. Pertsonaia horren atzean dagoen pertsona ezagutzeko aukera izango dugu: Peio. Peio euskalduna da, baserritarra, Gipuzkoako herri txiki batean jaioa eta hazitakoa eta bere bizitzaren momentu batean oso garrantzitsua izan zen erabakia hartu zuen. Konturatu zen bere benetako nortasunarekin bat egitea ezinezkoa zitzaiola bere herrian, eta Londresera joan zen bizitzera. Ibilbide eta aldaketa hori kontatzen du.

Zergatik kabareta?

Bitxia izan zen. Hasi nintzenean, antzezlan itxura zuen. Baina, pixkanaka, dantzak eta musikak garrantzia zutela konturatu nintzen. Amacay Amezaga ondoan izan nuen, eta berak esan zidan kabaret bat zela eta ezin egokia goa zela nik kontatu nahi nuena kontatzeko. Kabaretak baduelako drama eta komikoa; dena dauka. Gerora ere, konturatu nintzen Euskal Herrian kabareta oso gutxi egin dela. Hain gustukoa izanda kabareta... ikusleek eskertuko dute hain ohikoa ez den formatu bat ikustea.

Musikak garrantzia handia du.

Gauza asko nahastu ditugu. Musikari dagokionez, euskal musikaren erreferentzia asko izan ditugu. Ederra izan da. *Esnatu naiz* izenburua Kerobia taldearen abesti batean oinarrituta dago. Oso Kerobia zalea naiz, eta idazten ari nintzela konturatu nintzen abesti hori egokia zela. Beste izenburu bat neukan hasieran. Bide Ertzean, Zea Mays, Idoia Hernandez... baimena eskatu genien eta eman ziguten. Bestetik, aski ezagunak egiten zaizkigu beste artista batzuk sartu ditut ere: Beyonce, Queen, Samantha Fox eta abar. Hori dena, nahastuta.

"Konpostari balio erantsia eman behar diote"

Juan Jose Armendariz hiriberriarrak hiru hamarkada baino gehiago daramatza konpostaren inguruan hausnartzen. Pili Irigoienekin batera, Sakanako Mankomunitateko ehungarren konpost tona hartu zuen

Erkuden Ruiz Barroso HIRIBERRI A.

1 Sakanako Mankomunitateko 100. konpost tona hartu zenuten.

Gu hara etxerako konposta jasotzera joan ginen, eta ez genekien ezer. Hartu genuen, eta egun hartan horrekin topo egin genuen.

2 Noiztik egiten duzue konposta?

Duela 30 urte baino gehiagotik. Beste etxean ere egiten genuen, baina garai hartan zizareekin. Nork berea egiten zuen.

3 Nolako zen prozesua?

Nork bere egiten zuen. Hondakin organikoa bota eta gero, fermentatzen zenean, zizareak sartzen ziren. Orain, hemen, zizareak ez dira ikusten, baina konpostaje instalazio horietan bai. Askotan. Soluzio hori ona da. Organikoaren arazo handiena da hondakin pila egiten den momentua. Handia denean, fermentatzean, gasak eta horrelakoak ateratzen dira. Pixkanaka egiten denean, fermentatu bezain pronto biltzen da eta lekuz aldatzen da. Baina, dena dela, hori soluzio integrala da.

4 Nola egiten duzue orain?

Ez da berdina neguan edo udan. Daukaguna botatzen joaten gara. Aurreko egunean hesia moztzen aritu ginen, eta horrekin tapatu genuen. Bota aurretik, belarra lehorte da egokiena. Udaran konposta bustitzen dugu. Oxigenatu ere egin behar da. Fermentatuta dagoen ikusteko, zizarearekin egin daiteke proba. Oso gelda badoa fermentatuta dago; ziztu bizian mugitzen bada ez dago fermentatuta.

5 Zenbat denbora behar da?

Urte batetik bestera egiten da konposta. Hainbat metodo daude. Badira gauza batzuk ez direnak bakarrik txikitzen. Hor-



Juan Jose Armendariz hiriberriarra.

taz, bota aurretik txikitu behar dira, oskolak esaterako. Sistema modernoagoak ere badira.

6 Noiztik birziklatzen duzue?

Mankomunitatean zerbitzua jarri zutenetik. Aurretik ez zegoen, eta dena edukiontzi bereira botatzen genuen. Jokaera txar hori toki batzuetan mantentzen da. Gipuzkoako udal pila batekin harremana dut, eta ados ez dagoen jendea da txarrena. Dena elkarrekin botatzen dute. Oso txarra da hori. Benetan lotsagarria.

7 Kontzientzia izatea da garrantzitsua?

Erraza da: kartoia, beira, latak eta tetra brikak. Kartoiarekin oso gaizki egiten du jendeak. Zapatu behar da. Beira pixkatxo bat garbitu behar da, plastikoa eta tetra brikak bezala. Bestela,

ziklatzeko prest egon arren, ikustekoa zen: dena nahasten zuten. Barrutik atera behar da. Mankomunitateko esan zidatenean egiten hasiko zirela eta esan nien: erakutsi behar duzue konpostaren balio erantsia.

9 Eta zein da?

Zuhaitz hazitegiarako, lorontziarako, baratzerako... Ramon Elosegik esaten zuen gaixorik dauden pinuen konponbidea izan zitekeela ere. Gaixo daude bata bestea kutsatu duelako, baina lur horri behar dituen elikagaiak emanez gero eta berrituz gero, konpontzen da. Lurra berreskuratze modua da konposta. Ongarria bada, baina oso pobrea. Gatz mineralak behar ditu. Zer gauzarekin aberastu daiteke kon-

posta? Txorikakarekin, arrautzen oskolekin, algekin...

10 Zer egiten duzue konpostarekin?

Guk etxean egiten dugun konpostarekin ez dugu nahikoa, eta horregatik Sakanako Mankomunitatean hartzen dugu. Bi konpostak nahasten ditugu. Hemen go lurra oso gogorra da, eta buntzeko erabiltzen dugu konposta.

11 Nondik datorkizu konpostarekiko interesa?

Lanagatik zabortegetan ibiltzen nintzen askotan, eta bertan ikusten nuen... Baziren batzuk oso deskontrolatuak zeudenak. Ikastaroak egin ditut, eta toki asko bisitatu ditugu.

**EMAIOZU
MEREZI DUEN
IKUSGARRITASUNA**

Kuña, elkarriketa, audio, irratsaio, web-banner, prentsarako euskarri, kartel, eskuorri... eta bururatzen zaizun euskarri publizitario horrekin lagunduko dizugu

gk
DISEINUA ETA
KOMUNIKAZIOA

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe
619 821 436 | info@gkomunikazioa.eus | Foru plaza, 23-1. Altsasu

f | www.gkomunikazioa.eus